



NAFARROAKO
Aldizkari Ofiziala

2020. urtea

50. zenbakia

Osteguna, martxoaren 12a

A U R K I B I D E A

ORRIALDEA

ORRIALDEA

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.3. Foru Aginduak

- 33/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 4koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren otsailaren 27ko 27/2009 Foru Agindua eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariaren ekainaren 18ko 231/2013 Foru Agindua aldatzen dituena. 27/2009 Foru Agindua balore, aseguru eta errentei buruzko urteko informazio aitortenaren 189 eredu onetsi zuen, eta eredu hori ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian aurkezteko diseinu fisiko eta logikoak ezarri zituen. 231/2013 Foru Aginduaren bidez, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren 210 eta 211 ereduak onetsi eta horiek aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezarri ziren; eredu horiek erabili behar dira establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak aitortzeko eta establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrengandik ondasun higiezinak eskuratzeagatik ezarritako atxikipena aitortzeko.

3517

1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

- 132E/2020 EBAZPENA, otsailaren 19koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez aldatzen baita Oinarritzko Osasun Laguntzako fakultatiboan lanbide karreraren Ebaluazio Batzordearen osaera.

3518

1.2.2. Oposizioak eta lehiaketak. Lan publikoaren eskaintza

- 42/2020 EBAZPENA, otsailaren 28koa, Barneko zuzendari nagusiak emana, Barneko zuzendari nagusi-

aren martxoaren 21eko 71/2019 Ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, Foruzaingoko agente lanpostu batzuk lehiaketa bidez edo berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zen.

3518

- 28/2020 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa, Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana, zeinaren bidez merezimendu lehiaketa baterako deialdia egiten baita ikastetxeetan berariazko proiektuak edo programak aztertu eta ezartzeko lanpostu batzuk zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

3519

- 366/2020 EBAZPENA, otsailaren 17koa, Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariak emana, Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 28ko 21E/2020 Foru Agindua gauzatzen duena.

3522

- 388/2020 EBAZPENA, otsailaren 17koa, Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariak emana, zeinaren bidez betetzen baita Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 29ko 23E/2020 Foru Agindua.

3523

- GORA JOTZEKO ERREKURTSOA. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 21eko 739/2019 Ebazpenaren bidez, deialdi bat onetsi da, batetik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko APTE-Anatomia Patologikoaren arloko teknikari espezialisten 4 lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko, eta bestetik, hautapen proben bitartez izangaien zerrendak osatzeko (2019ko 139. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 18koa).

3523

ORRIALDEA

ORRIALDEA

1.7. BESTELAKOAK

- 64/2020 EBAZPENA, martxoaren 3koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Irakaskuntza Partekatuen Proiektu Pilotuan parte hartuko duten ikastetxe publikoak zehazten dituena. Proiektu hori 2020ko martxotik ekainera bitarte gauzatuko da. 3524
- 13E/2020 EBAZPENA, otsailaren 17koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez ingurumen ukipenatarako baimena ematen baita Erriberriko udal-mugartean, Las Torres eta La Pedreran (Erriberri), neurtzeko antena bat instalatzeko proiekturako. Sustatzailea MTorres Desarrollos Energéticos SL da. 3525
- 15E/2020 EBAZPENA, otsailaren 18koa, Biodibertsitatearen Zerbitzuko zuzendariarena, Ingurumen Ukipenatarako Baimena ematen diona "Asteraingo banaketa- eta sarbide-sarea zabaltzeko proiektua" delakoari, A12 autobidean dagoen zuntz optikoko sarea konektatu ahal izateko Asteraingo kontsultategi medikoarekin, sustatzailea Navarra de Servicios y Tecnologías SA (NASERTIC) delarik. 3526
- 41E/2020 EBAZPENA, otsailaren 19koa, Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariak emana, zeinaren bidez baimentzen baita Beraskoingo udal-mugarteko zerri ustiategi baten (umetarako zerramak) instalazioaren aldaketa nabarmena. Granja Belascoáin SL da titularra. 3526
- 187E/2020 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, "Haragitako ardi-aziendaren instalazioa Pitillasen, umetarako 2.100 ardirentzat" proiektuaren ingurumen inpaktuaren txostena egiten duena. Sustatzailea Izco Jurio Felix, Izco Ongay, Felix y Oscar sozietate kooperatiboa da. 3527
- GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO DEPARTAMENTUA. Jendaurreko informazioa, Zangozan goi tentsioko instalazio elektrikoa jartzeko administrazio baimenari buruzkoa, proiektuaren onenari buruzkoa eta zehazki haren onura publikoa deklaratzeari buruzkoa. Espedientea: SAT11080. 3528

2. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA**2.1. OPOSIZIOAK ETA LEHIAKETAK. LAN PUBLIKOAREN ESKAINTZA**

.....	3530
-------	------

- LIZARRA.....	3530
----------------	------

2.2. XEDAPEN ETA IRAGARKIAK, HERRIEN ARABERA ANTOLATUAK

.....	3530
-------	------

- ADIOS.....	3530
--------------	------

- ALLO.....	3530
-------------	------

- AGOITZ.....	3531
---------------	------

- ARESO.....	3531
--------------	------

- ARITZALA.....	3531
-----------------	------

- BERIAIN.....	3531
----------------	------

- BURLATA.....	3532
----------------	------

- ESPRONTZEDA.....	3532
--------------------	------

- LIZARRA.....	3532
----------------	------

- ESTERIBAR.....	3533
------------------	------

- GIRGILLAO.....	3533
------------------	------

- UHARTE.....	3533
---------------	------

- LARRION.....	3533
----------------	------

- LATASA.....	3534
---------------	------

- LEKUNBERRI.....	3534
-------------------	------

- MARTZILLA.....	3534
------------------	------

- ERRIBERRI.....	3537
------------------	------

- ORKOIEN.....	3537
----------------	------

- IRUÑA.....	3537
--------------	------

- RIBAFORADA.....	3541
-------------------	------

- ERROMANTZATUA.....	3541
----------------------	------

- SANTSOL.....	3541
----------------	------

- TEBAS-MURU ARTEDERRETA.....	3542
-------------------------------	------

- TUTERA.....	3542
---------------	------

- URROTZ-HIRIA.....	3542
---------------------	------

- ESA.....	3542
------------	------

- ZANGOZAKO ESKUALDEKO ZERBITZUEN MANKOMUNITATEA.....	3542
---	------

3. ESTATUKO ADMINISTRAZIOA	3543
---	------

1. NAFARROAKO FORU KOMUNITATEA

1.1. XEDAPEN OROKORRAK

1.1.3. Foru Aginduak

33/2020 FORU AGINDUA, martxoaren 4koa, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak emana, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren otsailaren 27ko 27/2009 Foru Agindua eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariaren ekainaren 18ko 231/2013 Foru Agindua aldatzen dituena. 27/2009 Foru Aginduak balore, aseguru eta errenitei buruzko urteko informazio aitortpenaren 189 eredu onetsi zuen, eta eredu hori ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian aurkezteko diseinu fisiko eta logikoak ezarri zituen. 231/2013 Foru Aginduaren bidez, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren 210 eta 211 ereduak onetsi eta horiek aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezarri ziren; eredu horiek erabili behar dira establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak aitortzeko eta establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarren-gandik ondasun higiezinak eskuratzegatik ezarritako atxikipena aitortzeko.

2019. urtean lantzen ahal diren aldaketa teknikoak itxi ondoren, foru agindu honen bidez onesten dira 189 ereduari dagozkion egin gabeko aldaketak. Horrela, aipatu ekitaldiko informazio adierazpenekin lotutako aldaketa multzoa osatuko da.

Foru agindu honen lehen artikulua aldatu egiten du Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren otsailaren 27ko 27/2009 Foru Agindua. Foru agindu horrek balore, aseguru eta errenitei buruzko urteko informazio aitortpenaren 189 eredu onetsi zuen, eta eredu hori ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian aurkezteko diseinu fisiko eta logikoak ezarri zituen, zergadunari, bere baloreen zorroari dagozkionez, laguntza emateko

sistema berrien funtzionamendu egokirako eskatzen den informazioari egokitzeko.

Horretarako, lehenik, "MERKATU GAKOA" izeneko eremua aldatzen da, bereizteko Europar Batasuneko atzerriko balio-merkatuak eta atzerriko gainerako herrialdeetako balio-merkatuak.

Bigarrenik, "BALOREEN KOPURUA" izeneko eremua aldatzen da, horiek zenbatzeko formula "Finantza-aktiboekin eta bestelako balore higigarriekin egindako eragiketen urteko aitortpena" izeneko 198 ereduarekin homogeneizatzeko, aitortuak guztira dituen tituluak aitortzearen.

Azkenik, eremu berri bat gehitzen da, "TITULARTASUNAREN GAKOA", bereizteko titular-jabe osoa eta aipatu informazio adierazpenaren xede diren balioen jabe soila.

Estatuaren eta Nafarroaren arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 28. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, ez-egoiliarren errentaren gaineko zerga ordainarazteko orduan, Estatuak ezarritako dituen arauekin alderatuta, funtsez eta formaz eduki bera duten arauak aplikatuko ditu Nafarroak. Horrenbestez, bigarren artikulua bidez, aldatu egiten da 210 eta 211 ereduak onesten dituen 231/2013 Foru Agindua, 11.1 artikuluko a) letrari bigarren paragrafo bat gehituta, 210 ereduaren araudia Estatuak arauarekin parekatzeko.

Horrenbestez, eta bat etorritik maiatzaren 24ko 174/1999 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Erregelamenduaren 62.23 artikulua erekin,

AGINTZEN DUT:

Lehen artikulua.–Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak otsailaren 27an emandako 27/2009 Foru Aginduaren aldaketa. Foru agindu horrek balore, aseguru eta errenitei buruzko urteko informazio aitortpenaren 189 eredu onetsi zuen, eta eredu hori ordenagailuz zuzenean irakurtzeko euskarrian aurkezteko diseinu fisiko eta logikoak ezarri zituen.

Bat. II. eranskina.–2. motako erregistroaren diseinua (aitortuaren erregistroa), 80 idazgunea:

80	Alfabetikoa	MERKATU GAKOA	
		Gako hauetako bat jarriko da:	
		GAKOA	DESKRIBAPENA
		A	Espainiako bigarren mailako balore-merkatu ofiziala
		B	Atzerriko bigarren mailako balio-merkatu ofiziala (Europar Batasuna)
		C	Espainiako beste merkatu batzuk
		D	Atzerriko beste merkatu batzuk
		E	Atzerriko bigarren mailako balio-merkatu ofiziala (Europar Batasuneko ez dena)

Bi. II. eranskina.–2. motako erregistroaren diseinua (aitortuaren erregistroa), 96 idazgunetik 107 idazgunera:

96-107	Zenbakizkoa	BALORE KOPURUA	
		Entitate juridikoaren kapitaleko edo funts berekietako akzio edo partaidetzen guztirako zenbatekoa adieraziko da, merkatu antolatutako batean negoziatu direnak, merkatu antolatuetan negoziatutako kapital berekiak hirugarrenei lagatzearen ondoriozko baloreena edo inbertsio kolektiboko erakunde baten kapital sozialeko edo ondare-funtseko akzioena edo partaidetzena.	
		Eremu honi buruzko informazioa emanen da, bakar-bakarrik, "BALOREAREN GAKOA" (81 idazgunea) izeneko eremuan "A", "B" edo "C" balioa idatzi denean.	
		Bi eremutan zatitzen da:	
		96-105	Baloreen zati osoa
		106-107	Baloreen zati dezimala (edukirik ez badu, zeroz beteko da)
		Era berean, aitortu asko daudenean, haietako bakoitzean adieraziko da partaidetza-portzentaje jakin bat duten guztirako baloreen kopurua.	

Hiru. II. eranskina.–2. motako erregistroaren diseinua (aitortuaren erregistroa), 129 idazgunea, "TITULARTASUNAREN GAKOA" eremua gehitzea:

129	Alfabetikoa	TITULARTASUNAREN GAKOA	
		Gako hauetako bat jarriko da:	
		T: Titularra	J: Jabe soila

Lau. II. eranskina.–2. motako erregistroaren diseinua (aitortuaren erregistroa), "ZURIAK" eremuak, 129-500 idazguneak hartzen dituenak, aurrerantzean, 130-500 idazguneak hartuko ditu.

Bigarren artikulua.–Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Kontseilariaren ekainaren 18ko 231/2013 Foru Aginduaren 11.1.a) artikuluan bigarren paragrafo bat gehitzea. Foru agindu horren bidez, ez-egoiliarren errentaren gaineko zergaren 210 eta 211 ereduak onetsi ziren, eta haiek aurkezteko baldintza orokorrak eta prozedura ezarri. Eredu horiek erabili

behar dira establezimendu iraunkorrik gabe lortutako errentak aitortzeko eta establezimendu iraunkorrik gabeko ez-egoiliarrengandik ondasun higiezinak eskuratzegatik ezarritako atxikipena aitortzeko.

"Hala ere, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko abenduaren 14ko 2016/2341 (EB) Zuzentarauak (jarduerak eta enplegu pentsioen funtsak gainbegiratzeari buruzkoa) araututako gizarte aurreikuspeneko instituzioa izanik, instituzioa finkatua dagoen estatuan eskumena duen agintaritzak luzatutako ziurtagiri bat eransten ahaliko dute, Ez-egoiliarren

errentaren gaineko zergari buruzko Erregelamenduaren hirugarren xedapen gehigarriko 2.a) apartatuan, bigarren paragrafoan, aurreikusitako baldintza beretan eta mugagabeko balio berarekin.”

Azken xedapen bakarra.—Indarra hartzea.

Foru agindu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

189 ereduaren aldaketak 2020 martxoaren 1etik aurrera aurkezten diren aitortenei aplikatuko zaie, 2019ko informazioari dagokionez.

Iruñean, 2020ko martxoaren 4an.—Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria, Elma Saiz Delgado.

F2003294

1.2. AGINTARIAK ETA LANGILEAK

1.2.1. Kargu-uzteak, izendapenak eta bestelako egoerak

132E/2020 EBAZPENEA, otsailaren 19koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emana, zeinaren bidez aldatzen baita Oinarrizko Osasun Laguntzako fakultatiboaren lanbide karreraren Ebaluazio Batzordearen osaera.

Apirilaren 6ko 11/1999 Foru Legearen bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko fakultatiboaren lanbide karreraren sistema arautu zen. Ondoren, lege hori garatzeko arauak eman zituen abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuaren bidez, lanbide karreraren Ebaluazio Batzordeen osaera zehazteaz gain, batzorde horietako kideak izendatzeko bete beharreko baldintzak ezarri ziren.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen urtarilaren 12ko 11E/2016 Ebazpenaren bidez eta maiatzaren 8ko 311E/2018 Ebazpenaren bidez, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Oinarrizko Osasun Laguntzako fakultatiboaren lanbide karreraren Ebaluazio Batzordearen osaera aldatu zen, eta batzorde horretako burua, kideak eta idazkaria izendatu ziren.

Aipatu abenduaren 18ko 376/2000 Foru Dekretuaren 15. artikulua ezartzen duenez, zortzi kidek osatuko dituzte Ebaluazio Batzordeak: horietatik lau Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko izendatuko ditu, bat Langileen Batzordeak, eta gainontzeko hirurak dagokion batzorde tekniko asistentzialak.

Ebaluazio Batzordeetako kideek arrazoi hauengatik utziko dute kargua: agintaldia bukatzea izendatu zituztenetik lau urte igarota, karguari uko egitea, erretiroa hartzea edo dagokion batzordearen esparruan aritzeari uztea.

Batzordekide izateari uko egin dio María del Mar Malón Musgo andreak, zeina Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko izendatu baitzuen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen urtarilaren 12ko 11E/2016 Ebazpenaren bidez. Hori horrela izanik, bidezkoa da hura ordeztzea.

Lau urteko agintaldia bete dute Mariano Hernández Galindo jaunak (batzordeburua), José Luis Moreno Ochoa jaunak (idazkaria) eta Borja Azaola Estévez jaunak, zeinak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko izendatu baitzituen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen urtarilaren 12ko 11E/2016 Ebazpenaren bidez. Hori horrela izanik, bidezkoa da horiek ordeztzea.

Lau urteko agintaldia bete dute hiru batzordekide hauek: Jesús Soria Aznar jauna, Ramón Villanueva Moreno jauna eta Rosa Alás Brun andrea. Batzorde Tekniko Asistentzialak izendatu zituen lehenbiziko biak, eta Langileen Batzordeak, berriz, hirugarrena, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen urtarilaren 12ko 11E/2016 Ebazpenaren bidez. Hori horrela izanik, bidezkoa da horiek ordeztzea.

Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaileak honako hauek proposatu ditu Oinarrizko Osasun Laguntzako fakultatiboaren lanbide karreraren Ebaluazio Batzordea osatzeko: Patricia Alfonso Landa andrea eta Susana Miranda Alcoz andrea, batzordekide; Mariano Hernández Galindo jauna, batzordeburu; eta José Luis Moreno Ochoa, idazkari.

Langileen Batzordeak Rosa Alás Brun andrea proposatu du Oinarrizko Osasun Laguntzako fakultatiboaren lanbide karreraren Ebaluazio Batzordeko kide izateko.

Batzorde Tekniko Asistentzialak Jesús Soria Aznar jauna eta Ramón Villanueva Moreno jauna proposatu ditu Oinarrizko Osasun Laguntzako fakultatiboaren lanbide karreraren Ebaluazio Batzordeko kide izateko.

Irailaren 3ko 171/2015 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Estatutuek ematen dizkidaten ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Honako hauek Oinarrizko Osasun Laguntzako fakultatiboaren lanbide karreraren Ebaluazio Batzordeko kide izatetik kentzea:

María del Mar Malón Musgo andrea.

Borja Azaola Estévez jauna.

Rosa Alás Brun andrea.

Jesús Soria Aznar jauna.

Ramón Villanueva Moreno jauna.

2. Honako hauek izendatzea Oinarrizko Osasun Laguntzako fakultatiboaren lanbide karreraren Ebaluazio Batzordeko kide:

Patricia Alfonso Landa andrea.

Susana Miranda Alcoz andrea.

Rosa Alás Brun andrea.

Jesús Soria Aznar jauna.

Ramón Villanueva Moreno jauna.

3. Mariano Hernández Galindo jauna berriz ere izendatzea Oinarrizko Osasun Laguntzako fakultatiboaren lanbide karreraren Ebaluazio Batzordeko buru.

4. José Luis Moreno Ochoa jauna berriz ere izendatzea Oinarrizko Osasun Laguntzako fakultatiboaren lanbide karreraren Ebaluazio Batzordeko idazkari.

Horrenbestez, honako hau da Oinarrizko Osasun Laguntzako fakultatiboaren Ebaluazio Batzordearen osaera:

–Batzordeburua: Mariano Hernández Galindo jauna, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaileak proposaturik.

Batzordekideak:

–Patricia Alfonso Landa andrea, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaileak proposaturik.

–Susana Miranda Alcoz andrea, Oinarrizko Osasun Laguntzako Kudeatzaileak proposaturik.

–Rosa Alás Brun andrea, langileen batzordeak proposaturik.

–Jesús Soria Aznar jauna, Batzorde Tekniko Asistentzialak proposaturik.

–Ramón Villanueva Moreno jauna, Batzorde Tekniko Asistentzialak proposaturik.

–Pablo Pascual Pascual jauna, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 8ko 311E/2018 Ebazpenaren bidez izendatua.

–Idazkaria: José Luis Moreno Ochoa jauna.

5. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

6. Ebazpen interesdunei jakinaraztea, eta ohartaraztea ez duela administrazio bidea amaitzen, eta haren kontra gora jotzeko errekurtsoa aurkez daitekeela, Osasuneko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, jakinarazi eta biharamunetik hasita. Hori guztia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 126.1.c) eta 126.3 artikuluekin bat, eta Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariaren abuztuaren 23ko 118/2019 Foru Aginduaren bidez egindako eskumenen eskuordetza erabiliz.

Iruñean, 2020ko otsailaren 19an.—Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailea, José Ramón Mora Martínez.

F2002880

1.2.2. Oposizioak eta lehiaketak. Lan publikoaren eskaintza

42/2020 EBAZPENEA, otsailaren 28koa, Barneko zuzendari nagusiak emana, Barneko zuzendari nagusiaren martxoaren 21eko 71/2019 Ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horren bidez, Foruzaingoko agente lanpostu batzuk lehiaketa bidez edo berariazko lehiaketa bidez betetzeko deialdia onetsi zen.

Barneko zuzendari nagusiak martxoaren 21ean emandako 71/2019 Ebazpenaren bidez, deialdi bat onetsi zen Foruzaingoko agente lanpostu batzuk lehiaketa bidez edo berariazko lehiaketa bidez betetzeko. Deialdia 2019ko 79. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, apirilaren 25ekoan.

2019ko maiatzaren 16an, 72807162H zenbakiko NANA duen pertsonak gora jotzeko errekurtsoa jarri zuen ebazpen horren aurka. 2019ko uztailaren 5eko Nafarroako Aldizkari Ofizialean (130. zenbakia) ediktu bat argitaratu zen gora jotzeko errekurtso horren berri emateko eta interesdun guztiei jakinarazteko hura aztertu eta alegazioak aurkezten ahal zituztela 10 egun baldioduneko epean, iragarkia argitaratzen zen egunetik hasita. Horretarako emandako epean inork ez zuen alegaziorik aurkeztu.

Funtzio Publikoaren Antolamenduko Zerbitzuak eskaturik, Euskara-bidea/Euskararen Nafar Institutuko zuzendari kudeatzaileak txosten bat egin zuen 2019ko abenduaren 11n gora jotzeko errekurtsioan planteatuko auziei buruz.

Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak urtarrilaren 24an emandako 9E/2020 Foru Aginduaren bidez, baietsi egin zen Barneko zuzendari nagusiaren martxoaren 21eko 71/2019 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsio hori, funtsean, errekurtsiogilearen uziak zuzenbidearen arabera zirelaokan, hots: hautapen prozesu horretan bete beharreko lanpostu batzuetarako eskatzen zen euskara maila egiaztatuta ahal izatea berariaz deitutako proba baten bidez.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen organoetako langileen arloko eskudantziak hazetzen dituen otsailaren 21eko 30/2005 Foru Dekretuaren 10. artikuluan bidez aitortuak ditudan eginkizunak erabiliz,

EBAZTEN DUT

1. Foruzaingoko agente lanpostu batzuk lehiaketa bidez edo berariazko lehiaketa bidez betetzeko asmoz Barneko zuzendari nagusiaren martxoaren 21eko 71/2019 Ebazpenaren bidez onetsitako deialdiaren 3. oinarriko 5. atala aldatzea, oinarri arautzaileen 3.5 atalaren bukaeran paragrafo hau gehituz:

“Euskaraz jakin beharra ezarrita duten lanpostuetara lehiatzen diren izangaiek, hala adierazi eta eskatuz gero, berariaz deitutako jakite proba bat egiten ahalko dute eskatutako hizkuntza maila dutela egiaztatzeko.”

2. 15 egun naturaleko epea irekitzea, ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, ebazpen honen eranskinean azaltzen diren lanposturen batera edo guztietara lehiatzea aukeratu ahal izateko, baina, bakar-bakarrik, euskararen jakite maila neurtzeko probaren bidez.

Eskaera deialdiaren 5.2 atalean ezarritako lekuetatik edozeinetan aurkezten ahalko da.

3. Hasiera batean irekitako epean eskabidea aurkeztu eta destinoa hautatu zuten interesdunek ezin izanen dituzte aldatu orduan hautatutako destinoak edo lehentasun hurrenkera.

Eranskinean azaldutako lanposturen batera lehiatzea aukeratuz gero, aukeratzeko destinoa aurretik egindako destinoen zerrendan txertatuko da, eta, hala, aukeraturako lanpostuen hurrenkera ondoz ondo aldatuko da.

4. Ebazpen hau argitaratzea Nafarroako Aldizkari Ofizialean, Nafarroako Gobernuaren Interneteko web atarian (www.nafarroa.eus) deialdiari buruz ageri den fitxan eta foruzain etxeetako iragarki-tauletan, orok jakin dezan.

5. Ebazpen hau Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiari, Argibide eta Erregistro Bulegoari eta kalifikazio epaimahaiko idazkariari jakinaraztea, behar diren ondorioak izan ditzan.

6. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta haren aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkezten ahal da, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita, honako hauekin bat: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 126. artikulua eta Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikulua.

Iruñean, 2020ko otsailaren 28an.–Barneko zuzendari nagusia, Amparo López Antelo.

ERANSKINA

[Euskara maila egiaztatzeko proba egiteko eskaera](#) (PDFa).

F2003256

28/2020 EBAZPENEA, otsailaren 25ekoa, Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emana, zeinaren bidez merezimendu lehiaketa baterako deialdia egiten baita ikastetxeetan berariazko proiektuak edo programak aztertu eta ezartzeko lanpostu batzuk zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

Apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuaren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitateaz kanpoko irakasleen kidegoetako lanpostuak nola bete arautzen da. 2.1 eta 2.2 artikuluen arabera, oro har, Hezkuntza Departamentuak merezimendu lehiaketak deituko ditu ikastetxeetan hastear diren edo hasi berriak diren berariazko programa edo proiektuak aztertu edo ezartzeko lanpostuak zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

Horrenbestez, Hezkuntza Departamentuko zerbitzu eskudunek ikasturte honetan zenbait programa eta proiektutarako deialdia egiteko pro-

posamenak jaso ondoren, bidezkoa da merezimendu lehiaketetarako deialdia onestea ikastetxeetan berariazko proiektuak edo programak aztertu eta ezartzeko lanpostu batzuk zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

Horiek horrela, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 208/2019 Ebazpenaren bidez eskuordetutako eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Merezimendu lehiaketarako deialdia onestea, ikastetxeetan berariazko proiektuak edo programak aztertu eta ezartzeko lanpostu batzuk zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

2. Ebazpen hau eta I. eranskina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta gainerako eranskina, II.etik LXXIV.era artekoak, Hezkuntza Departamentuko iragarki-taulan eta web-orrian (www.educacion.navarra.es) argitara daitezela agintzea.

3. Ebazpen hau eta eranskina igortzea, behar diren ondorioak izan ditzaten, Idazkaritza Tekniko Nagusira; Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko Lanpostuak Betetzeko Atalera; Antolamendu, Prestakuntza eta Kalitate Zerbitzura; Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzura; Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzura; Lanbide Heziketaren Plangintza eta Berrikuntzarako Zerbitzura; eta Lanbide Kualifikazio, Enpresa eta Enplegurako Zerbitzura.

MEREZIMENDU LEHIAKETAREN DEIALDIAREN OINARRIAK

Lehenbizikoa.

Merezimendu lehiaketarako deia egiten da, deialdi honetan ezartzen diren zehaztapenei jarraikiz, ikastetxeetan berariazko proiektuak edo programak aztertu eta ezartzeko lanpostu batzuk zerbitzu eginkizunetan betetzeko.

Bigarrena.–Izangaiek bete beharreko baldintza orokorrak.

Deialdi honetan parte hartzen duten izangaiek baldintza orokor hauek bete beharko dituzte onartuak izateko:

–Karrerako irakasle funtzionarioa edo lan-kontratadun finkoa izatea eta, egitura organikoaren eta eginkizunen ondorioetarako, Nafarroako Gobernu Hezkuntza Departamentuaren mende egotea.

–Jardunean egotea 2020ko irailaren 1ean.

Orobat, ebazpenaren eranskinetan lanpostu bakoitzerako eskatzen diren berariazko baldintzak bete beharko dituzte izangaiek.

Hirugarrena.–Parte hartzeko eskabidea.

1. Deialdi honetan parte hartu nahi dutenek horretarako diseinatutako eta Nafarroako Gobernuaren www.nafarroa.eus web-orrian eskuragarri dagoen eskaera-orria bete beharko dute, eta, bete ondoren, Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez aurkeztu beharko dute, Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuari zuzenduta.

Parte hartzeko baldintza orokorrak betetzen direla ofizioz egiaztatuko du Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak, izangaien espediente pertsonalaren arabera. Era berean, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak ofizioz egiaztatuko du izangaiek dagozkien irakasleen kidegokoak, espezialitatekoak eta hizkuntzakoak direla, eta, kasua bada, dagozkien profiletakoak direla.

Parte hartzeko eskabidearekin batera, izangaiek frogagiriak aurkezten ahalko dituzte prestakuntza eta esperientzia justifikatzeko, hain zuzen ere, ebazpen honen eranskinetan, “hautapen sistema” ataletan, jasotzen dena. Epaimahaiak egiaztatuko ditu agiri horiek.

Laugarrena.–Eskabideak aurkezteko epea.

Hamar egun balioduneko epea izanen da eskabideak aurkezteko, deialdi hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

Bosgarrena.–Izangaiek onartzea.

1. Eskabideak aurkezteko epea bukatuak, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak izangai onartu eta baztertuen behin-behineko zerrendak argitaratuko ditu Nafarroako Gobernuaren webgunean. Baztertuen kasuan, ez onartzeko arrazoiak ere agertuko dira.

Aipatu ebazpena argitaratuta, interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin zaiela ulertuko da, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat.

Zerrenda horien kontra interesdunek erreklamazioak aurkezten eta/edo parte hartzeko eskabidean egindako akatsak zuzentzen ahalko dituzte, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuari zuzendutako idazki baten bidez, bost egun balioduneko epean, argitaratu eta biharamunetik hasita.

2. Epe hori iraganik, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpena argitaratuko da izangai onartu eta baztertuen behin betiko zerrendarekin. Baztertuen kasuan, ez onartzeko arrazoiak agertuko dira.

Aipatu ebazpena argitaratuta, interesdunei egin beharreko jakinarazpena egin zaiela ulertuko da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 40. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoarekin bat.

Seigarrena.—Hautapen sistema.

1. Hautatua izan ahal izateko, izangaia nahi duen lanpostuaren eginkizunei lotutako memoria edo proiektu bat aurkeztu eta defendatu beharko du, ebazpen honen eranskinetan agertzen diren zehaztapenekin bat.

Memoria edo proiektuaren aurkezpena eta defentsa baloratzeko, Otik 10era bitarteko puntuazioa emanen zaio, eta gutxienez 5 puntu lortu ez dutenak baztertuko dira.

Lortzen den puntuazioa epaimahaiko kideek emandakoen batezbesteko aritmetikoa izanen da, milarenera biribilduta.

Izangai bakoitzak epaimahaiari azaldu beharko dio memoria edo proiektua, ahoz, 30 minutuz gehienez. Gero, epaimahaia eginen dizkion galderak erantzun beharko ditu, ahoz, 15 minutuz gehienez.

Prozedura hasteko, izangaia epaimahaiaren aurrean aurkeztuko dira eta memoriaren edo proiektuaren kopia bat emanen diote. Aurkezpen ekitaldira joaten ez diren edo memoriaren edo proiektuaren kopia ematen ez duten izangaia hautapen prozeduratik baztertuko dira, eta ez da zilegi izanen beste pertsona batzuk haien ordez agertzea.

Aurkezpen ekitaldira joateko deia Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpenaren bidez egiten zaie izangaiei, prozeduran onartzen diren izangaien behin betiko zerrenda onesteko ebazpen berean hain zuzen, zeina Nafarroako Gobernuaren webgunean argitaratuko baita gutxienez 48 ordu lehenago. Ebazpen horretan epaimahaien aurreko jarduketara noiz, zer ordutan eta non hasiko den adieraziko da.

Izangaiek parte hartzeko ordena alfabetikoki zehaztuko da; horretarako, zozketaz bi letra aterako dira, eta lehenengo abizenaren hasieran bi letra horiek dituen izangaia hasiko da. Zozketa hori izanen da letra-zozketaren prozedura ezartzen duen araudian ezarritakoa, hain zuzen ere, Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiak kudeatutako deialdietarako eta jarduketetarako egindakoa.

2. Behin epaimahaiaren aurreko jarduketak hasita, izangaiei egin beharreko hurrengo deiak Nafarroako Gobernuaren webgunean argitaratuko dituzte epaimahaiek.

3. Izangaien balorazioa bukatutik, epaimahai bakoitzak behin-behineko kalifikazioak eta esleitutako puntuazioak igorriko dizkio Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuari, eta horrek Nafarroako Gobernuaren webgunean (www.nafarroa.eus) argitaratuko ditu.

Puntuazioen berdinketarik baldin badago, epaimahaiak honako hau hartuko du kontuan berdinketa hori hausteko: deitutako lanpostu bakoitzean aritu ahal izateko baldintza gisa eskatutako irakasleen kidego(et) an izangaiek funtzionario gisa duten antzinasuna. Berdinketak jarraitzen badu, aintzat hartuko da zozketaren emaitza. Zozketa hori ezarrita dago letra-zozketaren prozedura ezartzen duen araudian, hain zuzen ere, Hezkuntza Baliabideen Zuzendaritza Nagusiak kudeatutako deialdietarako eta jarduketetarako aplikatzen den horretan.

Kalifikazioen kontra izangaiek erreklamazioak aurkezten ahal dizkiote Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuari, argitara eman eta biharamunetik hasita bi egun balioduneko epean.

Erreklamazioak ebatzi ondoren, epaimahaiak Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzura igorriko du prozeduraren espediente osoa, barnean sartuta behin betiko kalifikazioak, zeinak Nafarroako Gobernuaren webgunean argitaratuko baitira (www.nafarroa.eus).

4. Deialdi honen xedeko zerbitzu eginkizunak Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzua ebazpen baten bidez emanen dira, izangaia hautatzen diren ordenaren arabera.

Zazpigarrena.—Epaimahaiak.

1. Epaimahai bakoitzak hiru kide izanen ditu: bi Hezkuntzako Zuzendaritza Nagusiak proposatuak, eta bat Irakasleen Batzordeak proposatua.

Epaimahaien osaera ebazpen honen eranskinetan agertzen da.

Beharrezkoa bada, ordezeko kideak izendatuko dira.

2. Epaimahaiko kideek parte hartzeari uko egin beharko diote, eta organo deitzaileari horren berri eman, baldin eta Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean abstentziorako aipatzen diren egoeretako batean badaude.

Izangaiek, halaber, zilegi dute epaimahaikideak errekusatzea, egoera horietako bat gertatzen denean.

Zortzigarrena.—Zerbitzu eginkizunen araubidea.

1. Proiektu edo programa hauei dagozkien lanpostuak zerbitzu eginkizunetan beteko dira, bi ikasturtez gehienez, haiak ezarriak dituzten ikastetxeetan, 2020ko irailaren 1etik hasita.

2. Zerbitzu eginkizunak emateko ezinbestekoa izanen da esleitutako ikastetxean kasuan kasuko espezialitatean eta hizkuntzan lanpostu hutsen bat izatea, ikasturte bakoitzerako hezkuntza plangintzaren arabera aurreikusitako beharrak zein diren zehaztu ondoren.

3. Deialdi honen ondorioz ematen diren zerbitzu eginkizunak arrazoi hauetako batengatik bukatuko dira:

a) Aldi jakin baterako eman zirelako eta aldi hori bukatu delako.

b) Ikastetxea kendu edo aldatu delako kentze edo aldatze horrek kalteturiko zerbitzu eginkizunen jarraitutasuna galarazten badu.

c) Interesdunak espresuki uko egin diolako.

d) Gerora sortutako arrazoiak, honako hauen ondorioz: lanpostua betetzeko gaitasun edo egokitasun falta, agerian jarria emandako eginkizunak eraginkortasunez betetzeko errendimendu urria erakusteagatik, edo eginkizunen edukia aldatu izana.

Aipatu arrazoi horiengatik zerbitzu eginkizunak bukatu aurretik, deialdia proposatu duen organoak txosten arrazoitu baten bidez eskatuko dio Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariari hasiera eman diezaiola zerbitzu eginkizunak bukatzeko prozedurari.

Prozedura Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariaren ebazpen bidez hasiko da. Ebazpena zentroko zuzendari-tzak igorritako txostenarekin batera igorriko da deialdia proposatu duen organora, honek egoki irizitako jarduerak egin ditzan, interesdunari eta Langile Irakasleen Batzordeari entzunaldia eman ondoren.

Bidezko jarduketak egin ondoren, deialdia proposatu duen organoak langileen gaitasuna edo lanposturako egokitasuna baloratzeko txostena prestatuko du, eta Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuari igorriko dio.

Txosten hori negatiboa bada, zerbitzu eginkizunei bukaera emanen zaie Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzua ebazpen baten bidez.

e) Jarduneko zerbitzua ez den zeinahi beste egoera administratibotara pasatzea.

f) Administrazioan beste lanpostu baterako izendatua izatea.

g) Langileari beste zerbitzu eginkizun bat eman izatea, Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen barnean zein beste edozein administrazio publikotan.

h) Zerbitzu eginkizunen kontzesioa arrazoitu zuen beharra desagertu izana, ikastetxean behin betiko destinoa duten irakasleek lanpostu hori bete dutelako.

Justifikatutako aparteko kasuetan izan ezik, zerbitzu eginkizunak aurreikusitako epea baino lehen bukatzen badira b eta c letretan aurreikusitako arrazoiaren bat suertatzeagatik, ikasturtearekin batera bukatu beharko da zerbitzualdia.

4. Zerbitzu eginkizunak hasi baino lehen aurreko atalean aurreikusitako arrazoi bat (a eta d letretakoak izan ezik) gertatzen denean, ez da zerbitzu eginkizunetarako baimenik emanen.

5. Zerbitzu eginkizun hauek ez dira bateragarriak maiatzaren 14ko 39/2014 Foru Dekretuan ezarritako baimenekin (haren bidez Nafarroako Administrazio Publikoetan enplegua banatzeko neurriak ezarri ziren).

Horrenbestez, funtzionarioak horrelako baimenen bat esleiturik badu baina oraindik hasi ez baldin bada, baimenari uko egin beharko dio, baldin eta deialdi honetan ezarritako zerbitzu eginkizunak onartzea nahi badu. Orobat, funtzionarioari zerbitzu eginkizunak onartu bazaizkio edo jadanik zerbitzu eginkizunetan ari bada eta aipatutako baimenen bat eskatzen badu, baimena ukatuko zaio.

6. Deialdi honetan izangai bat ere ez hautatzeagatik hutsik gelditzen diren lanpostuak zerbitzu eginkizunen bidez betetzen ahalko dira ikasturte baterako, organo eskudunak proposatuta.

Bederatzigarrena.—Erreklamoak.

Epaimahaiak ematen dituzten egintza eta ebazpenen kontra gora jotzeko erreklamoak paratzen ahal da Hezkuntza Departamentuko Ira-

kasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariari zuzenduta, errekurtsoaren xede den egintza argitaratu edo jakinarazi eta biharamunetik hasita hilabeteko epean.

Ebazpen honen eta berau aplikatzeko egintzen kontra gora jotzeko errekurtsoa jar daiteke, Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Hori guztia Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legean xedatutakoarekin bat eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta 122. artikuluei jarraikiz.

Iruñean, 2020ko otsailaren 25ean.–Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendaria, Amalia Cuartero Arteta.

I. ERANSKINA

PROIEKTUA/PROGRAMA	IKASTETXEA	LANPOSTU KOPURUA	LANSPOSTUEN EZAUGARRIAK
Koordinazio-lana egitea Uharteko BHIko Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetan lanerako prestakuntza eta orientabideen arloa ezartzeko, diziplinartekotasunez eta modu transbertsalean, proiektuetan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntzaren (POEI) bidez		1	II. eranskina
Uharteko BHIko Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetan gorputz jardueren zientzien arloa ezartzea, diziplinartekotasunez eta modu transbertsalean, proiektuetan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntzaren (POEI) bidez		1	III. eranskina
Lantaldeak dinamizatzea Uharteko BHIko elkarlana eta proiektuetan oinarritutako lana ezartzeko, Kimua programaren barnean		1	IV. eranskina
Koordinazio-lana egitea Uharteko BHIko Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetan proiektuetan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntza ezartzeko, komunikazioaren eta gizartearen arloan eta diziplinartekotasunez		1	V. eranskina
Koordinazio-lana egitea Uharteko BHIko Oinarrizko Lanbide Heziketako zikloetan proiektuetan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntza ezartzeko, arlo zientifiko-teknikoan eta diziplinartekotasunez		1	VI. eranskina
Erasmus+ eta Bioalternatiba KA2–KA202 nazioarteko proiektuak koordinatzea, "Lantokiko Prestakuntza" modulua Europako herrialdeetako enpresetan egiteko, nazioarteko mugigarritasun proiektuen bidez (Azkoien "Ribera del Arga" BHI)		1	VII. eranskina
Koordinazio-lana egitea proiektuetan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntza –Kimua programa–, ezartzeko Elektrizitatea, Elektronika eta Industria lanbide arloetako heziketa zikloetan (Tuterako ETI IBP)		1	VIII. eranskina
Dinamizazio-lana egitea proiektuetan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntza –Kimua programa– ezartzeko administrazioaren eta zerbitzuen sektoreko lanbide arloetako heziketa zikloetan (Tuterako ETI IBP)		1	IX. eranskina
Dinamizazio-lana egitea proiektuetan oinarritutako elkarlaneko ikaskuntza –Kimua programa– ezartzeko industria sektoreko lanbide arloetako heziketa zikloetan (Tuterako ETI IBP)		1	X. eranskina
Kudeatzea berrikuntza teknologikoko programa, online prestakuntza-koa eta CISCO edukiak dauzkana (Tuterako ETI IBP)		1	XI. eranskina
Proiektu hau kudeatzea: birtualizazioa eta proiektuetan oinarritutako lanaren metodologia aplikatzea hezkuntza sektoreko steam espezialitateetan (Iruñeko "María Ana Sanz" IB)		1	XII. eranskina
Kalitatea Kudeatzeko Sistema izeneko proiektuaren arduraduna (Mendabiako "Joaquín Romera" DBHI)		1	XIII. eranskina
Kalitatea Kudeatzeko Sistema garatzea	Cortesko "Cerro de la Cruz" DBHI	1	XIV. eranskina
Kalitatea Kudeatzeko Sistema ezartzeko arduraduna	Sarriguren "Sarriguren" BHI	1	XV. eranskina
Osasun programaren arduraduna	Lizarrako "Lizarralde" BHI	1	XVI. eranskina
Proiektu honen arduradunak: "(H)Argatik Pinpilin: Emozio eta Arte Amarauna"	Burlatako "Askatasuna" BHI	2	XVII. eranskina
Proiektu hauen arduraduna: "Memoria" eta "Sarri for future"	Sarriguren "Sarriguren" BHI	1	XVIII. eranskina
Proiektu honen arduraduna: "Kontsumo arduratsua, aldaketa sozialerako hezia"	Burlatako "Baialde" BHI	1	XIX. eranskina
Eskolari buruz gogoetan	Andosillako "Virgen de la Cerca" HLHIP	1	XX. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Iruñeko "San Francisco" HLHIP	3	XXI. eranskina, XXII. eranskina eta XXIII. eranskina
"Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Fustiñanako "Justo y Pastor" HLHIP	1	XXIV. eranskina
Programa honen arduraduna: Ingelesa sendotzea "IDEAL-Haur Hezkuntzako giroak" proiektuaren curriculumeko hiru arloetan	Iruñeko "García Galdeano" HLHIP	1	XXV. eranskina
Programa honen arduraduna: "IDEAL-Haur Hezkuntzako giroak" proiektua ezartzeko lantaldea koordinatzea	Iruñeko "García Galdeano" HLHIP	1	XXVI. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Iruñeko "José María Huarte" HLHIP	2	XXVII. eranskina eta XXVIII. eranskina
Programa honen arduraduna: "Eskola aktiboa, inklusiboa"	Beriaingo "Beraiain" HLHIP	2	XXIX. eranskina eta XXX. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Vianako "Ricardo Campano" DBHI	1	XXXI. eranskina
"Proeducar-Hezigarri, pedagogia aktiboen eskola berrikuntza proiektua ezartzea"	Iruñeko "Mendigotti" HLHIP	3	XXXII. eranskina, XXXIII. eranskina eta XXXIV. eranskina
Programa honen arduraduna: "Metodologia manipulatiiboak ezartzea matematikaren arloan"	Eloko "Santa Bárbara" HLHIP	1	XXXV. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektuan finkatzea"	Eloko "Santa Bárbara" HLHIP	1	XXXVI. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Orkoiengo "San Miguel" HLHIP	2	XXXVII. eranskina eta XXXVIII. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Mendabiako "San Francisco Javier" HLHIP	1	XXXIX. eranskina

PROIEKTUA/PROGRAMA	IKASTETXEA	LANPOSTU KOPURUA	LANSPOSTUEN EZAUGARRIAK
Programa honen arduraduna: Jolastokian kirola, inklusioa eta bizikidetzatza bultzatzeko proiektua garatzea: "Niregatik eta nire kide guztiengatik"	Mendabiako "San Francisco Javier" HLHIP	1	XL. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Noaingo "San Miguel" HLHIP	2	XLI. eranskina eta XLII. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Erriberriko "Príncipe de Viana" HLHIP	1	XLIII. eranskina
Programa honen arduraduna: "Ikaskuntza komunitateak" proiektua garatzea	Olaztiko "Domingo Bados" HLHIP	1	XLIV. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Iruñeko "Basoko" BHI	3	XLV. eranskina, XLVI. eranskina eta XLVII. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Corellako "Alhama" BHI	1	XLVIII. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar koordinatzea eta taldean esperimintatzea arloka eta irakaslan partekatua bidez"	Azkoiengo "Ribera del Arga" BHI	1	XLIX. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Sarriguren "Sarriguren" BHI	1	L. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Laraintzako "Laraintzako Ikastetxea DBHI"	1	LI. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri programa finkatzea"	Iruñeko "Iñaki Ochoa de Olza" DBHI	3	LII. eranskina, LIII. eranskina eta LIV. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea eta zabaltzea"	Iruñeko "Julio Caro Baroja" BHI	2	LV. eranskina
Programa honen arduraduna: "Talentua aintzat hartzea. Curriculum aberastea" proiektua finatzea	Iruñeko "Aita Moret-Irubide" BHI	1	LVI. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Iruñeko "Aita Moret-Irubide" BHI	2	LVII. eranskina eta LVIII. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Iruñeko "Iturruma BHI"	2	LIX. eranskina eta LX. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Iruñeko "Plaza de la Cruz" BHI	6	LXI. eranskina
Programa honen arduraduna: "Irakasle Taldea Ehuntzen"	Arbizuko Herri Eskola	1	LXII. eranskina
Programa honen arduraduna: "Proeducar-Hezigarri berrikuntza proiektua ezartzea"	Faltzesko "Álvara Álvarez" HLHIP	2	LXIII. eranskina eta LXIV. eranskina
Programa honen arduraduna: "Jolasaldi inklusiboak denontzat"	Iruñeko "Aita Moret-Irubide" BHI	1	LXV. eranskina
Programa honen arduraduna: "Jolasaldi irigarria eta eroso"	Tuterako "Monte San Julián" HLHIP	1	LXVI. eranskina
"Ikasleen agurra musikal gisa" proiektua koordinatzea	Iruñeko "Buztintxuri" HLHIP	1	LXVII. eranskina
"Jolaserako baliabideak jolastokian euskara eta ingelese erabiltzeko" proiektua koordinatzea	Iruñeko "Buztintxuri" HLHIP	2	LXVIII. eranskina
Proiektu hau koordinatzea: "Dinamika kooperatiboak sartzeko euskararen irakaskuntza, A eredu 4., 5. eta 6. mailatan"	Iruñeko "Buztintxuri" HLHIP	1	LXIX. eranskina
"Chromebook-aren ustiapen didaktikoa hizkuntzen azterketa ofizialak prestatzeko"	Iruñeko "Basoko" BHI	1	LXX. eranskina
"eTwinning-a gure aniztasunari erantzuteko" proiektua	Iruñeko "Julio Caro Baroja" BHI	1	LXXI. eranskina
"Erasmus+ Y e-Twinning programa" proiektua	Azagrako "Reyno de Navarra" DBHI	1	LXXII. eranskina
"eTwinning proiektua eta proiektu europarrak ezartzea eta jarraipena ematea"	Lekunberriko "Ibarberri" HLHIP	1	LXXIII. eranskina
"Hezkuntza emozionala Storybird-en bidez ingeleseko eskoletan" proiektua koordinatzea	Berriozarko "Mendialdea I" HLHIP	1	LXXIV. eranskina

F2002999

366/2020 EBAZPENA, otsailaren 17koa, Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariak emana, Hezkuntzako kontseilariaren urtarilaren 28ko 21E/2020 Foru Agindua gauzatzen duena.

Maria Jesús Murugarren Catalán andreak parte hartu zuen Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak apirilaren 4an emandako 1156/2018 Ebazpenaren bidez onetsitako txanda irekiko hautapen prozeduran, maisu-maistren kidegoko Haur Hezkuntza (gaztelania) espezialitatean.

2019o abuztuaren 1ean, Maria Jesús Murugarren Catalán andreak gora jotzeko errekurtsua jarri zuen Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren uztailaren 24ko 2745/2019 Ebazpenaren aurka (ebazpen horren bidez onetsi zen maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozeduraren lehiaketaldiko merezimenduen behin betiko balorazioa).

Espezialitate eta hizkuntza horretako deialdian sartu zen lanpostu kopurua honako hau zen: 3 lanpostu desgaitasuna duten pertsonendako erreserba prozedurarako eta 38 lanpostu txanda irekiko prozedurarako.

Aipatutako hautapen prozedura amaitu ondoren, 41 lanpostu bete ziren, guztiak txanda irekikoak, eta ez zen lanposturik bete desgaitasuna duten pertsonendako erreserba prozeduraren bidez.

Hezkuntzako kontseilariak urtarilaren 28an emandako 21E/2020 Foru Aginduaren bidez ontzat jo zen Maria Jesús Murugarren Catalán andreak Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren

uztailaren 24ko 2745/2019 Ebazpenaren aurka jarritako gora jotzeko errekurtsua (ebazpen horren bidez onetsi zen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozeduraren lehiaketaldiko merezimenduen behin betiko balorazioa).

Foru Agindu horrek Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuari agintzen dio 1,250 puntu emateko 2.1 atalean (alegatutako tituluaren ikasketa-espeditentea) Maria Jesús Murugarren Catalán andreari Haur Hezkuntza (gaztelania) espezialitatean lortutako merezimenduen baremoan, zuzenbideko oinarrietan jasotzen denaren arabera, eta ildo beretik, egokitzeko Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak apirilaren 4an emandako 1156/2018 Ebazpenetik eratorritako ebazpenak (Ebazpen horren bidez onartu zen maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozedura, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eremuko plazetarako).

4. Zuzenbide Oinarriak ezartzen du errekurtsogileak aurkeztu zuela, instantziarekin batera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Haur Hezkuntzako Irakasle titulua, hala nola dagokion ikasketa-egiaztagiria, bertan ez dela ageri ikasketetako batez besteko kalifikazioa. Ondoren, 2019ko uztailaren 5ean, zuzenketa aldiaren errekurtsogileak aurkeztu zuen Haur Hezkuntzako Irakasle tituluaren egiaztagiria, batez besteko kalifikazioak jasotzen zituena, 1,519 eta 7,010 hain zuzen ere.

Espeditentean jasotzen denaren arabera, errekurtsogileak zuzenketa aldiaren aurkeztutako ikasketen ziurtagiria, batez besteko kalifikazio horiek

jasotzen zituena, ez zen aintzat hartu, agiri hori epez kanpo aurkeztu zela irizita. Hala ere, egiaztatuta geratu da María Jesús Murugarren Catalán andreak hasieratik aurkeztutako agirian dagoeneko oposizioan sartzeko kalifikazio guztiak jasotzen zirela, eta zuzenketa aldiari aurkeztutako agiria hasierako haren antzekoa dela, desberdintasun bakarra delarik ikasketetan lortutako batez besteko kalifikazioak ageri direla, eta beraz, hasieran aurkeztutako agiria zuzentzeko emandako agirizat hartu behar dela.

Egiaztapen hori ikusita, errekurtsogileak lehiaketaldiaren amaieran puntuazio hau izan behar zuen:

Haur Hezkuntza (gaztelaniaz):

Puntuazioa guztira 9,250 (I. atala "Aitzineko esperientzia irakaskuntza": 7,000. II. Atala "Ikasketak": 1,250 puntu. III. Atala "Beste merezimendu batzuk": 1,0000 puntu).

Puntuazio berri horrekin, Haur Hezkuntza (gaztelania) espezialitateko lanposturik gabeko izangai gaindituen zerrendatik kanpo geratzen da María Jesús Murugarren Catalán andrea, zerrenda horretan 10. lekuan dagoelarik azken osoko puntuazioa 7,4990 duela, eta Haur Hezkuntza (gaztelania) espezialitateko oposizio-lehiaketako hautatutako izangaien zerrenda osatzera igarotzen da, 35. postuan, 7,9990 puntu dituela, lehiaketa eta oposizioaldiak gehitu ondoren.

Beraz, egoki da Itziar Duro Arraiza andrea baztertzea maisu-maistren kidegoan Haur Hezkuntza (gaztelania) espezialitatean sartzeko oposizio-lehiaketa gainditu duten izangaien zerrendatik, espezialitate horretako lanpostua erdietsi duten gaindituetatik azkena baita, Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariak otsailaren 17an emandako 365/2020 Ebazpenaren bidez Hezkuntzako kontseilariak urtarrilaren 20an emandako 7E/2020 Foru Agindua gauzatu ondoren. Aipaturiko ebazpen horren bidez, Arantza García Pardo andrea baztertu zen Haur Hezkuntza (gaztelania) espezialitatean maisu-maistren kidegoan sartzeko oposizio-lehiaketa, txanda irekiko prozeduran, gainditu duten izangaien zerrendatik.

Bigarrenik, bidezko da ondorioz gabe uztea Itziar Duro Arraiza andreak praktiketako funtzionario gisa egindako destino esleipena, eta beraz, irakasle lanpostura igarotzen da Haur Hezkuntzako (gaztelania) espezialitatean, aldi bateko kontratatu gisa, Mutiloako "San Pedro" Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxe Publikoan.

Horiek horrela, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 208/2019 Ebazpenaren bidez eskuordetutako eskudantziak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. María Jesús Murugarren Catalán andre izangaiaren puntuazioa aldatzea, Hezkuntzako kontseilariak urtarrilaren 20an emandako 7E/2020 Foru Aginduko 4. Zuzenbideko Oinarrian ezartzen denaren arabera.

2. María Jesús Murugarren Catalán andrea onartzea Haur Hezkuntza (gaztelania) espezialitatean sartzeko oposizio-lehiaketa gainditu duten izangaien zerrendan, txanda irekiko prozeduran, 35. postuan, azken osoko puntuazioa 7,9990 duela, lehiaketa eta oposizioaldiak gehitu ondoren.

3. María Jesús Murugarren Catalán andrea praktiketako funtzionario izendatzea, 2019ko irailaren 1eko ondorioekin, destinoa Funesko Haur eta Lehen Hezkuntzako "Elías Teres" Ikastetxe Publikoan duela.

4. Itziar Duro Arraiza baztertzea Haur Hezkuntza (gaztelania) espezialitateko maisu-maistren kidegoko txanda irekiko prozeduran sartzeko oposizio-lehiaketa gainditu duten izangaien zerrendatik.

5. Ondorioz gabe uztea Itziar Duro Arraiza andreak destinoa praktiketako funtzionario gisa, 2019ko irailaren 1eko ondorioekin.

6. Itziar Duro Arraiza sartzea maisu-maistren kidegoko Haur Hezkuntza (gaztelania) espezialitateko lanposturik gabeko izangai gaindituen zerrendan, puntuazioa 7,762 duela.

7. Itziar Duro Arraiza andrea kontratatzea maistra lanposturako, Haur Hezkuntza (gaztelania) espezialitatean, Mutiloako Haur eta Lehen Hezkuntzako "San Pedro" Ikastetxe Publikoan, 2019ko irailaren 1etik 2020ko abuztuaren 31ra arte.

8. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

9. Ebazpen hau helaraztea Idazkaritza Tekniko Nagusira, Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzura, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzura, Aldi Baterako Langileak Kudeatzeko Zerbitzura, Azterlan Ekonomikoen eta Nominen Zerbitzura, Mutiloako Haur eta Lehen Hezkuntzako "San Pedro" Ikastetxe Publikoan, Itziar Duro Arraiza andreak eta María Jesús Murugarren Catalán andreak, interesdunei jakinaraziz Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa jar dezaketela Lehendakartzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko kontseilariari zuzendua, hilabete bateko epean, jakinarazpena jasotzen duten egunetik aitzina.

Iruñean, 2020ko otsailaren 17an.—Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendaria, Javier Lacarra Albizu.

F2002574

388/2020 EBAZPENA, otsailaren 17koa, Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendariak emana, zeinaren bidez betetzen baita Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 29ko 23E/2020 Foru Agindua.

María Josefa Echeverría Ruiz andreak parte hartu zuen Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren apirilaren 4ko 1156/2018 Ebazpenaren bidez onetsitako txanda irekiko hautapen prozeduran, maisu-maistren kidegoko Lehen Hezkuntzako eta Atzerriko Hizkuntzako (ingelese) espezialitatean (bietan, gaztelaniaz).

Hautapen prozesuaren barnean, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren uztailaren 24ko 2745/2019 Ebazpenaren bidez, maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozeduraren lehiaketaldiko merezimenduen behin betiko balorazioa onetsi zen. Ebazpena 2019ko uztailaren 26an argitaratu zen. 2019ko abuztuaren 6an, María Josefa Echeverría Ruiz andreak gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu zuen uztailaren 24ko 2475/2019 Ebazpen horren kontra.

Oposizio-lehiaketaren fasea bukatu, María Josefa Echeverría Ruiz andrea praktiketako funtzionario izendatu zuten, Lehen Hezkuntzako espezialitatean (gaztelaniaz), Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren abuztuaren 30eko 3042/2019 Ebazpenaren bidez.

Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 20ko 23E/2020 Foru Aginduaren bidez, baietsi zen María Josefa Echeverría Ruiz andreak jarritako gora jotzeko errekurtsoa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren uztailaren 24ko 2745/2019 Ebazpenaren aurkakoa, zeinaren bidez onetsi baitzen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuan maisu-maistren kidegoan sartzeko hautapen prozeduraren lehiaketaldiko merezimenduen behin betiko balorazioa.

Foru Agindu horren bidez, Hezkuntza Departamentuko Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuari manatzen zaio 1,2500 puntu esleitzeko María Josefa Echeverría Ruiz andreak, bere merezimenduen baremoko 2.1 atalean (Alegatutako tituluaren espediente akademikoa). Esleipena eginek, honako hau da errekurtsogilearen lehiaketa faseko azken puntuazioa:

Lehen Hezkuntza (gaztelaniaz):

Puntuazioa, guztira: 9,2500 (I. atala, "Irakasle lanean egindako zerbitzuak": 7,000. II. atala, "Ikasketak": 1,2500 puntu. III. atala, "Beste merezimendu batzuk": 1,000 puntu).

Puntuazio berri horri oposizio fasean eskuratutakoa gehituta, 7,6716 puntu lortzen ditu María Josefa Echeverría Ruiz andreak, deialdian ezarritakoarekin bat, eta, hortaz, 54. postura pasatzen da hautapen prozesuan.

Horiek horrela, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiaren azaroaren 28ko 208/2019 Ebazpenaren bidez eskuordetutako ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. 1,2500 puntu esleitzea María Josefa Echeverría Ruiz andreak merezimenduen baremoaren 2.1 atalean (Alegatutako tituluaren espediente akademikoa), Lehen Hezkuntzako espezialitatean (gaztelaniaz), Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariaren apirilaren 4ko 1156/2018 Ebazpenaren bidez onetsitako hautaprobei dagokienez.

2. 7,6716 puntuko azken puntuazioa ematea María Josefa Echeverría Ruiz andreak oposizio-lehiaketan. Horri esker, 54. postura pasatzen da Lehen Hezkuntzako (gaztelaniaz) espezialitateko hautapen prozesuan.

3. Ebazpen hau igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan, Idazkaritza Tekniko Nagusira, Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzura, Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzura, Aldi Baterako Langileak Kudeatzeko Zerbitzura, Azterlan Ekonomikoen eta Nominen Zerbitzura eta interesdunari.

4. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, eta adieraztea ezen, haren kontra, ez baitu bide administratiboa amaitzen, gora jotzeko errekurtsoa jar daitekeela, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta biharamunetik hasita.

Iruñean, 2020ko otsailaren 17an.—Langileen Araubide Juridikoaren Zerbitzuko zuzendaria, Javier Lacarra Albizu.

F2002575

GORA JOTZEKO ERREKURTSOA. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen ekainaren 21eko 739/2019 Ebazpenaren bidez, deialdi bat onetsi da, batetik, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko APTE-Anatomia Patologikoaren arloko teknikari espezialisten 4 lanpostu oposizio-lehiaketa bidez betetzeko, eta bestetik, hautapen proben bitartez izangaien zerrenda osatzeko (2019ko 139. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, uztailaren 18koa).

Gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu da deialdiaren oposizioaldiko behin betiko emaitzen aurka. Hori dela eta, Administrazioen Publikoen Prozedura

Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45. eta 118.2 artikuluetan xedatutakoarekin bat, interesdun guztiei jakinarazten zaie, iragarki hau argitaratu eta biharamunetik gehienez ere hamar egun balioduneko epean alegazioak aurkez ditzaten.

Aurkeztutako errekursoaren kopia interesdunen eskura dago Osasun-bidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Araubide Juridikoaren Zerbitzuan, Iruñeko Tütera kaleko 20an.

Alegazioak Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aipatutako moduan aurkeztu behar dira.

Iruñean, 2020ko otsailaren 26an.—Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Araubide Juridikoaren Zerbitzuko burua, Marta Beamonte Aréjula.

F2003285

1.7. BESTELAKOAK

64/2020 EBAZPENA, martxoaren 3koa, Hezkuntzako zuzendari nagusiak emana, Irakaskuntza Partekatuairen Proiektu Pilotuan parte hartuko duten ikastetxe publikoak zehazten dituena. Proiektu hori 2020ko martxotik ekainera bitarte gauzatuko da.

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak 4.184.620 euro kudeatzen ditu "Hezkuntzaren aurrerapen eta sostengurako orientazio eta errefortzu programa" garatzeko, zeina Europako Gizarte Funtsak kofinantzatua baitago Enplegu, Prestakuntza eta Hezkuntzako Programa Eragilearen esparruan. Diru kopuru hori Ministroen Kontseiluak 2018ko azaroaren hogeita bederatzian hartutako Erabakiaren bidez Nafarroako Foru Komunitateari esleitu zion parte da.

Irakaskuntza Partekatuairen Proiektu Pilotua "Hezkuntzaren aurrerapen eta sostengurako orientazio eta errefortzu programa" izeneko eragiketaren barruan kokatzen diren hezkuntza programetako bat da, eta 1.000.000 euroko gastua du aurreikusia. Programaren bidez lortu nahi da gure ikasgeletan metodologia berritzaileak ezartzea, betiere modu inklusiboan.

Lehen Hezkuntzako bosgarren eta/edo seigarren maila ematen duten Nafarroako ikastetxe publiko guztiek, baita Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza ematen dutenek ere, behar bezalako informazioa jaso zuten, eta, hala, programan parte hartzeko aukera izan dute, eskaerak Hezkuntza Departamentuko Inklusio Proiektuetarako Bulegora bidaliz. Eskaera guztiak baloratu egin dira honako irizpide hauek aintzat hartzen zituen baremo baten arabera: ratioa, egoera behartsuan dauden ikasleen portzentajea, taldearen/gelaren heterogeneotasun maila eta Proeducar-Hezigarri Programan sartutako ikastetxea izatea. Laurogeita hamazazpi ikastetxe eta institutu publikok parte hartuko dute Irakaskuntza Partekatuairen Proiektu Pilotu honetan. Bertan, eskola zuzeneko hamabi saio egingen dira gehienez, eta, eskatutako ikasle talde bakoitzeko, bi irakasle arituko dira, eranskinean auzaltzen den bezala.

Parte hartzen duten irakasle guztiek konpromisoa hartzen dute bederatzirako prestakuntza jasotzeko, Proeducar-Hezigarri taldeak eta Inklusio Proiektuetarako Bulegoak batera antolatuko dutena. Memoria bat ere egin beharko dute, zeina oinarrizko dokumentua izanen baita Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuak proiektua ebaluatzeko.

Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzuko zuzendariak egindako proposamen-txostena ikusita, eta Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duen urriaren 30eko 267/2019 Foru Dekretuak ematen dizkidan ahalmenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. 2020ko martxotik ekainera bitarte Irakaskuntza Partekatuairen Proiektu Pilotuan parte hartuko duten ikastetxe publikoak zehaztea, baina horietako bakoitzari esleitu zaizkion eskola zuzeneko saioak ere, eranskinean ezartzen den bezala.

2. Ebazpen hau eta bere eranskina Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

3. Ebazpen honen aurka eta dagokion eranskinean aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke, Hezkuntzako kontseilariari zuzendua, argitaratu eta biharamunetik hilabeteko epean.

4. Ebazpen hau eta dagokion eranskina igortzea Inklusio, Berdintasun eta Bizikidetzaren Zerbitzura, Aldi Baterako Langileak Kudeatzeko Zerbitzura eta parte hartzen duten ikastetxeetara, behar diren ondorioak izan ditzaten.

Iruñean, 2020ko martxoaren 3an.—Hezkuntzako zuzendari nagusia, Gil Sevillano González.

ERANSKINA

Irakaskuntza Partekatuairen Proiektu Pilotuan parte hartuko duten ikastetxe publikoaren zerrenda

HERRIA	IKASTETXEA	ZUZKIDURA
ABLITAS	San Babil IP	15
ALTSASU	Zelandi IP	11
ANDOSILLA	Virgen de la Cerca IP	18
AGOITZ	San Miguel DBHI	3
ARBIZU	Arbizuko Herri Eskola IP	5
ARESO	Nazabal Eskola IP	3
ARGUEDAS	Sancho Ramírez IP	6
AZAGRA	Francisco Arbeloa IP	15
BARAÑAIN	Eulza IP	10
BARAÑAIN	Sahats IP	12
BARAÑAIN	Barañain BHI	7
BERA	Ricardo Baroja IP	10
BERA	Toki Ona BHI	2
BERBINTZANA	Río Arga IP	6
BERIAIN	Beriaingo IP	4
BERRIOZAR	Mendialdea 1 IP	42
BERRIOZAR	Mendialdea 2 IP	8
BUÑUEL	Santa Ana IP	5
BURLATA	Ibaialde BHI	6
ZARRAKAZTELU	Virgen de la Oliva IP	11
CASTEJÓN	Dos de Mayo IP	12
CINTRUÉNIGO	Otero de Navascués IP	51
CORELLA	Ciudad de Corella IP	16
CORTES	Bardenas Reales DBHI	15
DEIKAZTELU	Virgen de Nieves IP	2
ELIZONDO	Elizondoko IP	11
LIZARRA	Remontival IP	31
LIZARRA	Tierra Estella BHI	7
ETXARRI ARANATZ	San Donato IP	10
FALTZES	Doña Álvaro Álvarez IP	23
FITERO	Juan de Palafox IP	14
FUNES	Elías Teres IP	10
FUSTIÑANA	Santos Justo y Pastor IP	2
UHARTE	Virgen Blanca IP	3
IRURTZUN	Atakondoa IP	13
ITURMENDI	Arrano Beltza IP	5
LARRAGA	San Miguel IP	20
LEITZA	Amazabal BHI	4
LEKUNBERRI	Ibarberri IP	13
LERIN	Doña Blanca de Navarra IP	13
LODOSA	Ángel Martínez Baigorri IP	8
LODOSA	Pablo Sarasate BHI	7
LOS ARCOS	Santa María IP	10
MARTZILLA	San Bartolomé IP	10
MARTZILLA	Marqués de Villena BHI	6
MÉLIDA	Santa Ana IP	5
MENDABIA	Joaquín Romera DBHI	3
MENDIGORRIA	Julián M. ^a Espinal Olcoz IP	6
ELO	Santa Bárbara IP	2
MURILLO EL FRUTO	Raimundo Lanas IP	12
NOAIN	San Miguel IP	33
NOAIN	Elortzibar DBHI	8
OLAZTI	Domingo Bados IP	10
ERRIBERRI	Príncipe de Viana IP	22
ORKOEN	San Miguel IP	23
IRUÑA	Azpilagaña IP	9
IRUÑA	Buztintxuri IP	27
IRUÑA	Cardenal Ilundáin IP	11
IRUÑA	Doña Mayor de Navarra IP	46
IRUÑA	Ermitagaña IP	13
IRUÑA	García Galdeano IP	23
IRUÑA	Iturrana IP	13
IRUÑA	José M ^a Huarte IP	22
IRUÑA	Mendigoiti IP	5
IRUÑA	Patxi Larrainzar IP	6

HERRIA	IKASTETXEA	ZUZKIDURA
IRUÑA	San Francisco IP	10
IRUÑA	San Jorge IP	19
IRUÑA	Sanduzelai IP	10
IRUÑA	Basoko BHI	27
IRUÑA	Iturrama BHI	9
IRUÑA	Mendillorri BHI	4
IRUÑA	Navarro Villoslada BHI	17
IRUÑA	Plaza de la Cruz BHI	28
IRUÑA	Iñaki Ochoa de Olza DBHI	7
AZKOIEN	Ribera del Arga BHI	1
GARES	Puente la Reina/Gares IP	2
RIBAFORADA	San Bartolomé IP	9
SAN ADRIÁN	Alfonso X "El Sabio" IP	19
SAN ADRIÁN	Ega BHI	6
ZANGOZA	Sierra de Leyre BHI	5
SARRIGUREN	Sarriguren BHI	15
TUTERA	Elvira España IP	70
TUTERA	Griseras IP	8
TUTERA	Huertas Mayores IP	10
TUTERA	Monte San Julián IP	26
TUTERA	Valle del Ebro BHI	10
URROZ	Urrozko IP	2
VALTIERRA	Félix Zapatero IP	8
VIANA	Ricardo Campano IP	23
VIANA	Del Camino DBHI	12
ALESBES	El Castellar IP	16
ATARRABIA	Atargi IP	2
ATARRABIA	Lorenzo Goikoa IP	15
ATARRABIA	Pedro de Atarrabia DBHI	6
ZIZUR BHI	Camino de Santiago IP	14
ZIZUR BHI	Catalina de Foix IP	23
ZUBIRI	Gloria Larraizar IP	7
ORDUAK, GUZTIRA		1254

F2003273

13E/2020 EBAZPENA, otsailaren 17koa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, zeinaren bidez ingurumen ukipenatarako baimena ematen baita Erriberriko udal-mugartean, Las Torres eta La Pedreran (Erriberri), neurtzeko antena bat instalatzeko proiekturako. Sustatzailea MTorres Desarrollos Energéticos SL da.

2019ko uztailaren 26an, goian aipatutako espedienteari dagokion ingurumen ukipenatarako baimena lortzeko eskaera sartu zen Lurralde eta Paisaia Zerbitzuan. Espedientea abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren 2C eranskineko M epigrafean sartzen direnetakoa da. Foru dekretu horrek Ingurumena Babesteko Esku Hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua onetsi zuen.

Abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren 36. artikulua ezartzen du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendua eta Etxebizitzako kontseilariak ebazpen arrazoitua emanen duela ingurumen ukipenatarako baimena eman edo ukatzeari buruz.

Foru dekretu horren 31.2 artikulua ezartzen du ingurumen ukipenatarako baimenak barne hartuko duela lurzoru urbanizaezinean baimen daitezkeen jardueretarako baimena ere, eta uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuak, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duenak, 117. artikuluan ezarritako ondorioak izanen dituela.

Baimena eskatu da neurketa anemometrikorako dorre bat jartzeko, toki horretako baliabide eolikoen berri izateko helburuaz, inguru horretan parke eoliko bat jartzeko aurretiazko urratsa baita, horretarako aukera balego.

Proiektuko dorrea sekzio triangeluarreko saretazko egitura bat da, altzairuzkoa eta 100 metroko altuerakoa. Oinarria altzairuzko plaka bat duen burdinaria baskulatzailaren gainean jarriko da, azpian hormigoizko zapata bat duela 1,9x1,9x0,4 metroko sakoneran.

Dorre altzairuzko kableaz eginiko tiranteekin finkatuko da, 8 mm-ko diametrokoak, elkarren artean 120° bereizitako 3 planotan jarrita. Plano bakoitzak 11 tirante ditu, 9 metroko tarteetan iltzatuta dorrean, baita lurrean ere 3 puntutan, 1,5x1,5x1,7 m-ko sakoneran dauden hormigoizko zapatatuta sartutako altzairuzko piken bidez.

Erriberriko Udalarri ere eskatu zitzaion hirigintza txostena. Lurraldearen Antolamenduari Atalax txostena egin du, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uz-

tailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Errege Dekretuaren 117. artikuluan ezarritakoarekin bat. Ingurumen Eraginaren Atalax aldeko txostena eman du, baina baldintza batzuk ezarrita.

Espedienteko txostenak ikusirik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32. artikuluan ezarritakoa betez; Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duen Nafarroako Foru Komunitateko Lehendakariaren abuztuaren 6ko 22/2019 Foru Dekretua betez eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren oinarritzko egitura ezartzen duen abuztuaren 14ko 96/2019 Foru Dekretua betez,

EBAZTEN DUT:

1. Ingurumen ukipenatarako baimena ematea Erriberriko udal-mugartean, Las Torres eta La Pedreran (Erriberri), neurtzeko antena bat instalatzeko proiekturako. Sustatzailea MTorres Desarrollos Energéticos SL da.

2. Baimen honek neurri hauek aplikatzeko betebeharrak ezartzen du:

Ingurumen arlokoak:

–Aurkeztutako ingurumen ukipen azterlanean zehaztutako neurriak aplikatu beharko dira, eta zehazki: hegaztiak babesteko neoprenoizko balizak jartzea, tiranteetan zerrenda lumineszenteak dauzkatenak, aipatu azterlanean zehaztutakoari jarraituz.

–Azpiegitura egiteko behar diren obrak bukatu ondoren, ukitutako eremuak lehengoratu egingen dira. Soberako lurren eta obra-materialen hondakinak kudeatzaile baten esku jarri beharko dira, edo zabortege baimendu batera eraman beharko dira, izaeraren arabera.

–Ingurumen ukipenatarako baimenaren ebazpena eman ondoko 5 urtean desmuntatuko da dorrea. Eremua garbi geldituko da, eta lurrak lehengoratu dira; sortutako hondakinak bakoitzaren izaeraren arabera kudeatuko dira, dagokion araudia betez.

Hirigintza arlokoak:

–Baimen honek parametro eolikoak neurtzeko dorre bat eraikitzea baizik ez du babesten, aurkeztutako dokumentazioarekin bat eta baimen honetan ezartzen diren determinazioei jarraituz.

–Azpiegitura egiteko behar diren obrak bukatu ondoren, ukitutako eremuak lehengoratu egingen dira.

–Egin gogo den jarduerak uki ditzakeen edo hartarako trabagarri izan daitezkeen azpiegitura eta zortasunei dagokienez, sustatzaileak, obrak egin baino lehen, behar diren kontsultak egingen ditu, eta, hala badagokio, behar diren baimen guztiak eskuratuko ditu kasuan kasuko gaian eskudun diren organoetatik. Bereziki, instalazioak 100 metroko altuera gainditzen badu, Aire Segurtasuneko Estatuko Agentziaren baimena lortu beharko da.

–Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 117.4 artikuluan xedatutakoarekin bat, ebazpen honen bidez babesten diren jarduerak edo jarduketak egin edo martxan jarri beharko dira baimena eman eta bi urteko epean. Epe hori iragandakoa, baimenaren ondorioak bukatuko dira, eta ez du eraginkortasunik izanen.

–Jarduera uzteak berekin ekarriko du jardueraren titularrak ukitutako lurrak lehengoratu beharra, gehienez ere bost urteko epean, eraikuntzak eraitsita eta/edo kenduta. Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 119. artikulua erekin bat, lizentzia eman baino lehen, udalak sustatzaileari eskatuko dio aitopren baten bidez konpromisoa har dezala, baimendutako jarduera utziz gero, bost urteko epean, gehienez, lurzorua lehengoratzeko.

3. Proiektuaren ingurumen ukipenatarako baimena eskuratzeko ezinbestekoa da 5.000 euroko fidantza jartzea, baimendutako jarduerak kalterik sortzen badu horiek leheneratu edo gutxituko direla bermatzeko.

4. Baimen honek, gainera, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 117. artikuluan ezarritako ondorioak izanen ditu; izan ere, artikulua horretan lurzoru urbanizaezinean egingen diren jarduerak baimentzeko prozedura ezartzen da.

5. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta espedientearen interesa dutenek, administrazio publikoek izan ezik, gora jotzeko errekurtsoa jar dezakete, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean.

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahaliko dute, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean. Horrek ez du galarazten Nafarroako Gobernuari aurretiazko errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

Epeak ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera kontatuko dira.

6. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

7. Ebazpen hau igortzea Lurraldearen Antolamenduaren Atalari, Erriberriko Udalari, Ingurumena Zaintzeko Atalari (Tafalla-Zangozako Koordinazio Unitateari) eta interesdunari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 17an.–Biodibertsitatearen Zerbitzuko zuzendaria, Enrique Eraso Centelles.

F2002497

15E/2020 EBAZPENA, otsailaren 18koa, Biodibertsitatearen Zerbitzuko zuzendariarena, Ingurumen Ukipenatarako Baimena ematen diona "Asteraingo banaketa- eta sarbide-sarea zabaltzeko proiektua" delakoari, A12 autobidean dagoen zuntz optikoko sarea konektatu ahal izateko Asteraingo kontsultategi medikoarekin, sustatzailea Navarra de Servicios y Tecnologías SA (NASERTIC) delarik.

2019ko azaroaren 4an, goian aipatutako espedienteari dagokion Ingurumen Ukipenatarako Baimena lortzeko eskaera sartu zen Biodibertsitatearen Zerbitzuan. Espediente hori abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren 2C eranskineko M) epigrafean sartua dago ("Komunikaziorako instalazioak"). Foru Dekretu horrek onetsi zuen ingurumena babesteko esku hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamendua.

Abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren 36. artikulua ezartzen du Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitzako kontseilariak ebazpen arrazoiua emanen duela Ingurumen Ukipenatarako Baimena emateaz edo ukatzeaz.

Aipatu Foru Dekretuaren 31.2 artikulua ezartzen du Ingurumen Ukipenatarako Baimenak lurzoru urbanizaezinean baimentzen ahal diren jardueretarako ere jasoko duela. Hala, 2020ko otsailaren 13an, Lurralde eta Pasaia Zerbitzuak aldeko txostena egin dio proiektuari, zenbait baldintzarekin, uztailearen 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren bidez onetsitako lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 117. artikulua onorioetarako.

Jarduketaren helburua da zuntz optikoko banaketa-sarea lotzea Asteraingo kontsultategi medikoarekin. Hoditeria berria A-12 autobideko 557 kuxtatilan hasi, 10+900 KPan, autobideko ezpondatik jaitsi, Asteraingo bidearen bermara heldu eta ezkerretik doa Asterain herriraino. Jarduketaren zati bat hiri-lurzoruan da, eta gainerakoa lurzoru urbanizaezinean.

Lan hauek eginen dira: 580 m-ko hoditeria, PVCzko 110 mm-ko 2 konduktu, hormigoizko 5 m-ko kanaleta, kuxtatila, kableak eta gainerako instalazio osagarriak.

Zizur Zendeako Udalaren aldeko txostena ageri da espedientean, hiri-zerbitzuen azpiegituratzat jotzen du esku-hartzea, hiri-plangintzarekin bat datorrena, eta hiri-lurzoruan jarduteko irizpideak ezartzen ditu.

Ingurumen Eraginaren Atalak dioenez, jarduketak ez die eragin balio naturalei, ez du eragin izan paisaian, hodian trazatuak ez du zeharkatzen naturako gune babesturik, ez die eragiten ez ibaiei ez bide historikoei ez abelbideei eta, beraz, aldeko txostena eman du, baldintzekin.

Espedientean dauden txostenak ikusirik eta Ingurumeneko zuzendari nagusiaren azaroaren 8ko 107/2019 Ebazpenaren bidez eskuordetutako eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

1. Ingurumen Ukipenatarako Baimena ematea "Asteraingo banaketa- eta sarbide-sarea zabaltzeko proiektua" delakoari, A12 autobidean dagoen zuntz optikoko sarea konektatu ahal izateko Asteraingo kontsultategi medikoarekin, sustatzailea Navarra de Servicios y Tecnologías SA (NASERTIC) delarik.

2. Baimen honek neurri hauek aplikatu beharra ezartzen du:

Ingurumen arlokoak:

–Hoditeria eraikitzearen ondorioz sortzen diren hondakinak edo material-hondarrak egoki kudeatu beharko dira, Nafarroako Foru Komunitatean eraikuntza- eta eraipen-hondakinak sorrera eta kudeaketa arautzen dituen martxoaren 28ko 23/2011 Foru Dekretuarekin bat.

–Azpiegituraren obrak bukatu ondoren, ukitutako eremuak lehengoratu eginen dira.

Hirigintza arlokoak:

–Azpiegituraren obrak bukatu ondoren, ukitutako eremuak lehengoratu eginen dira.

–Egin diren eta espedientean jaso diren txosten sektorialetan xedatutakoari jarraituko zaio, edo kasuan kasuko baimenetan xedatzen denari.

–Egin gogo den jarduketak uki ditzakeen edo hartarako trabagarri izan daitezkeen azpiegitura eta zortasunei dagokienez, sustatzaileak, obrak egin baino lehen, behar diren kontsultak eginen ditu, eta, hala badagokio, behar diren baimen guztiak eskuratuko ditu kasuan kasuko gaian eskudun diren organoetatik.

–Ezagutzen ez den aztarna arkeologikoren bat agertzen bada, legeak agintzen du Arkeologia Atalari horren berri eman behar zaiola berehala,

hala baitio ondare historikoaren arloko legeriak (Nafarroako Kultur Ondareari buruzko azaroaren 22ko 14/2005 Foru Legearen 59. artikulua eta Espainiako Ondare Historikoari buruzko 16/1985 Legearen 42.3 eta 44. artikulua). Hori ez betetzeagatik ondare historikoari eragindako edozein ukipen arau-hauste larritzat joko da, aipatu Foru Legearen 101.h artikulua aplikatuz.

–Lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bateginaren 117.4 artikuluaekin bat, Ebazpen honen barruko jarduketak edo esku-hartzeak egin edo martxan jarri beharko dira baimena eman eta bi urteko epean. Hortik aurrera baimenaren ondorioak bukatu eta ez du eraginkortasunik izanen.

3. Baimen honek, gainera, lurraldearen antolamenduari eta hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duen uztailearen 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 117. artikuluko ondorioak izanen ditu, bertan ezartzen baita lurzoru urbanizaezinetako jarduketak baimentzeko prozedura.

4. Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta espedientean interesa dutenek, administrazio publikoek izan ezik, gora jotzeko errekurtsoa jar dezakete, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean.

Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzen ahalko dute, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean. Horrek ez du galarazten Nafarroako Gobernuari aurretiazko errekerimendua egin ahal izatea, administrazioarekiko auzien jurisdikzioa arautzen duen uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean.

Ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera kontaktatu dira epeak.

5. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

6. Ebazpen hau igortzea Lurralde eta Paisaia Zerbitzuari, Zizur Zendeako Udalari, Ingurumen Zaintzako Taldera (Iruñerri barrutia) eta interesdunari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 18an.–Biodibertsitatearen Zerbitzuko zuzendaria, Enrique Eraso Centelles.

F2002582

41E/2020 EBAZPENA, otsailaren 19koa, Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendariarena, zeinaren bidez baimentzen baita Beraskoingo udal-mugarteko zerri ustiategi baten (umetarako zerramak) instalazioaren aldaketa nabarmena. Granja Belascoáin SL da titularra.

Instalazio horrek badu ingurumen baimen integratua, Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiak apirilaren 30eko 856/2008 Ebazpenaren bidez emana, gero Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren uztailearen 31ko 790/2012 Ebazpenaren bidez aldatu eta Ingurumen Kalitatearen eta Aldaketa Klimatikoko Zerbitzuko zuzendariaren azaroaren 4ko 385E/2015 Ebazpenaren bidez eguneratu zena.

2019ko abenduaren 31n, titularrak instalazioa aldatzeko proiektuaren berri eman zuen, animalien gorpuetarako ahalmen txikiko errauskailu bat ezartzeko (50 kg/h). Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko 2020ko urtarriaren 16an emandako irizpenaren arabera, aldaketa hori "ez funtsezkoa" da, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Legea garatzen duen Erregelamenduaren 25. artikuluan ezarritako irizpideei jarraituz (erregelamendu hori abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen). Horregatik, ez da beharrezkoa ingurumen baimen integratu berria ematea. Baina aldaketa "esanguratsua" dela zioen, aldaketa garrantzizkoak ekartzen baititu instalazioaren funtzionamendu-baldintzetan. Hortaz, aldaketak ingurumen baimen integratuan jaso behar dira, eta hura aldatu.

Aurkeztutako dokumentazioa nahikotzat jo zen ingurumen baimen integratua aldatzen duen administrazio prozedura tramitatzeko. Hori dela eta, 2020ko urtarriaren 1ean, prozedura hori abiatu zen, dagokion proiektua gauzatu ahal izateko; zehazki, hau: animalien gorpuetarako ahalmen txikiko errauskailu bat ezartzea (50 kg/h arte), gasolioz elikatuko dena, instalazioko animalien gorpuak errausteko.

Espedientea tramitatu da Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzeko Erregelamenduaren 29. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituz. Erregelamendu hori abenduaren 28ko 93/2006 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen.

Lurzoru urbanizaezinean baimenduta dagoen jarduketa bat denez, hura udalaren eskumenean gelditzen da, eta ez du lurzoru urbanizaezinean jarduteko baimenik behar (Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko abenduaren 20ko 35/2002 Foru Legearen 117. artikulua), deusetan galarazi gabe beste organo edo administrazio batzuen lizentzia edo, hala badagokio, baimena lortu beharra, eta baztertu gabe tramite horietan organo eskudunak baloratzea sektoreko araudia eta lurraldearen antolamendurako tresnak betetzen diren.

Ebazpen proposamena instalazioaren titularrari entzunaldia emateko tramitean egon da hamar egunez, eta hark ez du proposamenaren aurkako alegaziorik aurkeztu.

Adierazitakoarekin bat, eta Ingurumeneko zuzendari nagusiaren azaroren 8ko 107/2019 Ebazpenaren bidez eskuordeturik ditudan eskumenak erabiliz,

EBAZTEN DUT:

Lehen a. –Baimentzea Beraskoango udal-mugartean dagoen zeri ustiategi baten (umetarako zerramak) instalazioaren aldaketa nabarmena. Instalazioaren titularrak Granja Belascoain SL da. Aldaketaren xedea da animalien gorpuetarako ahalmen txikiko errauskailu bat (50 kg/h) ezartzea; horrenbestez, instalazioak eta jarduerak berak ingurumen baimen integratuaren kasuan kasuko espediente administratiboetako baldintzak bete beharko dituzte, eta, gainera, ebazpen honen eranskinean agertzen diren baldintzak ere.

Bigarren a. –Aldaketa funtzionamenduan hasi baino lehen, titularrak abian jartzearen gaineko erantzukizunpeko adierazpen bat aurkeztu beharko du Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuan, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren abenduaren 23ko 448/2014 Foru Aginduaren 16. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Hirugarren a. –Titularrak proiektua gauzatu dela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena aurkeztzen duen egunetik hasiko dira aplikatzen ebazpen honetan ezarritako baldintzak, eta, zehazki kasutan, aldaketa abian jartzen den unetik. Bien bitartean, indarrean dagoen ingurumen baimen integratuaren ezarritako baldintzak aplikatuko dira.

Laugarren a. –Ebazpen honetan jasotzen diren baldintzak ez betetzeak berekin dakar ingurumeneko diziplina-neurriak hartzea, hain zuzen ere, Kutsaduraren Prebentzio eta Kontrol Integratuari buruzko Legearen testu bateginaren IV. tituluaren jasotakoak (abenduaren 16ko 1/2016 Legegintzako Errege Dekretuak onetsia), ezertan galarazi gabe sektoreko legerian ezarritakoak, aplikatzea izaten segituko baitu, eta subsidiarioki, Ingurumena Babesteko Esku-hartzeari buruzko martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legearen VI. tituluaren ezarritako zehapen araubidean jasotakoak.

Bosgarren a. –Instalazioaren aldaketa nabarmena egiteko ematen den ingurumen baimen integratu honek ez du galarazten instalazioak beste baimen batzuk eskuratu behar izatea bestelako arau batzuen indarrez, adibidez, Europako Parlamentuak eta Kontseiluak 2009ko urriaren 21ean gizakien kontsumorako ez diren animalien azpiproduktuei eta produktu deribatuei aplikatu beharreko osasun arauak ezartzeko emandako 1069/2009 Erregelamendua.

Seigarren a. –Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Zazpigarren a. –Ebazpen honek ez du administrazio bidea amaitzen, eta interesdunek, administrazio publikoek izan ezik, gora jotzeko erreturtoa jar dezakete. Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariari zuzendua, hilabeteko epean. Administrazio publikoek administrazioarekiko auzi-erreturtoa jar dezakete, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salari zuzendua, bi hilabeteko epean. Horrek ez du galarazten Nafarroako Gobernuari aurreitazio errekerimendua egin ahal izatea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean. Epeak ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik aurrera kontatuko dira.

Zortzigarren a. –Ebazpen hau Granja Belascoain SLri, Beraskoango Udalari, Abeltzaintza Zerbitzuari eta Ingurumena Zaintzeko Atalari igortzea, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 19an.–Ekonomia Zirkularraren eta Klima Aldaketaren Zerbitzuko zuzendaria, Pedro Zuazo Onagoitia.

Oharra: ebazpen honetan aipatzen diren eranskinak interesdunen eskura egon da Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiaren bulegoetan (González Tablas kalea 9, behe, Iruña), Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzuan, eta Nafarroako Gobernuaren webgune honetan: http://www.navarra.es/home_es/Temas/Medio+Ambiente/Evaluacion+ambiental/Autorizaciones+ambientales/.

F2002789

187E/2020 EBAZPENA, otsailaren 10ekoa, Ingurumeneko zuzendari nagusiak emana, "Haragitako ardi-aziendaren instalazioa Pitillasko, umetarako 2.100 ardirentzat" proiektuaren ingurumen inpaktuaren txostena egiten duena. Sustatzailea Izco Jurio Felix, Izco Ongay, Felix y Oscar sozietate kooperatiboa da.

2018ko ekainaren 28an, Ekonomia Zirkularraren eta Uraren Zerbitzuko Pitillasko Udalari adierazi zion, ofizio baten bidez, besteak beste, proiektua Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen II. eranskinean sartzeko direnetakoa dela eta, haren 7. artikuluan xedatutakoaren arabera, ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatua behar zuela.

Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 46. artikuluan ezarritako ondorioetarako, 2019ko abuztuaren 7an, ukitutako administrazioei eta interesa zuten pertsonari kontsulta egiteko tramitea ireki zen. Kontsultaren zerrenda txosten honen I. eranskinean ageri da. Tramite horretarako ezarritako hilabeteko epea bukatutik, Herri-Lurren Atalaren aldeko txostena eta Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuko Ureztalurren eta Lurzati Berrantolamenduaren Atalaren aldeko txostena jaso dira. Lurzati Berrantolamenduaren eta Estrategiaren Atalak adierazi du jardueraren sailkatuaren udal lizentziaren tramitazioan ematen duela bere txostena.

Abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 47. artikulua ezartzen du ingurumen organoak ebazpen arrazoitua ematen duela proiektua ingurumen inpaktuaren ebaluazio arruntaren mende jartzeari buruz edo ingurumen inpaktuaren txostena emateari buruz ebazpen honetan ezarritako baldintzetan.

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

Sustatzaileak abeltzaintza-ustiategi bat kudeatzen du Pitillasko 5. poligonoko 307. lurzatian, herriaren iparraldean, Santa Ana alderdian (ardi-aziendako 2.100 buru eta aurrerako 315 arkazte ditu bertan), baita 2 bazkaleku Uxuen eta beste 2 Pitillasen.

Lan horietarako, egungo nabea (1.000 m²-koa, 50 x 20) handitu nahi du, eta aziendaren hazkuntzarako erabiltzen duen 1.000 m²-ko (50 x 20 m) zelaitik 582 m² estali (zelai hori nabearren hegoaldeko aldeari atxikita dago). Instalazioak hartzen dituen lurzatiak 23.681 m² ditu, irregularra da, eta %8ko malda du, ekialdetik mendebalderantz doana. Nabe berrirako eremua zelaitua dago egungo nabea eraiki zenetik.

Nabearren egiturari dagokionez, altzairu ijestuzko portale metalezkoak izanen ditu, eta aurrez lakatutako xafla gorriko estalkia. Kanpoko itxiturari dagokionez, mendebaldeko fatxada nagusian, aurrez lakatutako xaflarekin eginen da (gris perla), atxikitako nabea bezala. Aurreikusitako okupazioa, proiektatutako eraikina barne, 1.582 m²-koa da, hots, %6,68koa.

Ur hornidurari dagokionez, ez da aurreikusi hodi gehiago sartzerik. Egungo sarreren ondoan, ur-aska batzuk jarriko dira, ura egungo nabetik ekarrita. Nabearren hornidura elektrikorik ere ez da aurreikusi. Ustiategi iristeko, "Artipuchal" partzela-bidea hartu behar da Pitillas-Beire NA-5331 errepidean.

INGURUMEN DOKUMENTUAREN ANALISIA ETA EBALUAZIOA

Tramitatzeo aurkeztutako ingurumen agiria ongi egokitzen da Ingurumen Ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 45. artikuluan zehazten dena. Nabearren zabalkuntza kokatuko den ingurunea egoki deskribatzen duen ingurumen inpaktuaren azterketa erantsi du, alternatibaren balorazioa aurkeztu du, izan litezkeen inpaktuak baloratu ditu eta zuzenketa, kudeaketa eta segimendurako zenbait neurri proposatu ditu, proposamena ingurumenaren aldetik bateragarria izan dadin.

Neurri horien artean, kutsadura, zaratak, usain txarrak eta halakoak kontrolatu eta haien aurre egitekoak daude, jardueraren lizentzia lortzeari dagokionak, eta beste batzuk ingurune naturala babesteko eta ingurune naturalean integra dadin bistarako eta ingurumenaren aldetik. Horien artean, aurreikusi da landare-lurra gordetzea obrak bukatutakoan lurzati zabaltzeko, 10 zuhaitz landatzea eta argi-kutsadura mugatzea (kanpoko argiak zama-lanak egiten diren uneetan baizik ez dira erabiliko, goiztirian edo gauean, goi-hemisferiora argirik igorri gabe eta irailaren 17ko 199/2007 Foru Dekretua betez, zeinaren bidez onetsi baitzen Gaueko ingurumena babestearren argiteria antolatzeari buruzko azaroren 9ko 10/2005 Foru Legea gartzeko Erregelamendua).

Ustiategi eremu beharatu batean kokatuta dago, Santa Ana alderdian, terraza bateko ekialdeko muturraren azpian (Donomondos bazkalekua eta Artipuchal), garai batean terrazako uren aterabide gisa erabilitako sakana zegoen behe-lur istiltzuetan. Ur horiek bideko bazterretik ateratzen dira, Pitillasko ureztalurretako drainatze erdi-naturalalearaino. Instalazioaren hegoaldeko eta mendebaldeko aldeak garbi ikusten dira NA-5331 errepidetik, Pitillasko iparraldeko irteeratik Artipuchalgo bideraino.

Pitillasko 5. poligonoko 308. lurzati ustiategiaren parte da; izan ere, bertan lasto-pakak pilatzen dira, eta horrek instalazioaren begi-inpaktu handitzen du.

PROIEKTUAREN ANALISIA, 21/2013 LEGEAREN III. ERANSKINEKO IRIZPIDEAK KONTUAN HARTUTA.

Kontsulten ondorioz eta Ingurumen Ebaluazioari buruzko 21/2013 Legearen III. eranskinean horri begira jasotzen diren irizpideetan oinarrituta, Ingurumen Eraginaren Atalak adierazi du behar bezala egin dela ingurumen ebaluazio sinplifikatuaren prozedura, eta proiektuak ez duela eragin nabarmenik ingurumenean, egindako ebaluazioan adierazitako ingurumen baldintzak betez gero, hori guztia ukatu gabe indarreko legearen arabera

lortu beharreko bestelako baimenak; bereziki, jarduera sailkatuaren lizentzia eta lurzoru urbanizazinean jarduteko baimena.

Ingurumen inpaktuaren ebaluazio sinplifikatuaren prozedura modu egokian bete dela irizita, adierazitakoarekin bat, eta honako hauek ematen dizkidaten eskudantziak erabiliz: Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta foru-sektore publiko instituzionalari buruzko martxoaren 11ko 11/2019 Foru Legearen 32. artikulua, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura ezartzen duen Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren abuztuaren 6ko 22/2019 Foru Dekretua eta Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuaren egitura organikoak ezartzen duen urriaren 23ko 258/2019 Foru Dekretua.

EBAZTEN DUT:

1. "Haragitako ardi-aziendaren instalazioa Pitillasen, umetarako 2.100 ardirentzat" proiektuak, zeina Izco Jurio Felix, Izco Ongay, Felix y Oscar sozietate kooperatiboak sustatu baitu, ez du eragin nabarmenik ingurumenean, ingurumen eraginaren txosten honetan adierazten den moduan, eta, beraz, ez da 21/2013 Legearen II. tituluko 1. kapituluko 1. atalean aurreikusitako ingurumen inpaktuaren ebaluazio arrunta egin beharrik.

2. Aurrekoa gorabehera, baimentzeak berekin ekarriko du baldintza hauek betetzea:

–Ingurumen Zuzendaritza Nagusiaren aginduzko txostena lortzeko asmoz Udalak aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera, zeina martxoaren 22ko 4/2005 Foru Legea garatzen duen Erregelamenduaren 69. artikuluan zehazten baita, jarduera sailkatuaren udal lizentzia baino lehen, memoria bat ere aurkeztuko du, non jardueraren ingurumen integrazio eta egokitzapenerako testua, planoak, aurrekontuak eta exekuzio epea azalduko diren, baita nabeak eta lastategia kokatzen diren lurzatiek bete beharreko ingurumen-neurriak ere. Zehazki, honako neurri hauek:

- Ustiategiaren muga zehatzak, Pitillasko 5. poligonoko 308. lurzati barne, hantxe biltzen baita aziendarentzako bazka. Honako hauek adierazteko planoak: espazioak, nabeak, abereen hazkuntzarako kanpoko eremuak, barneko bideak, espazio libreak, kanpoko drainatzeak eta abar.
- Lurzatiaren mendebaldean dauden ildo-bizkarrak integratzeko neurriak, adieraziz ea profilatu behar diren eta ustiategiaren barruan edo inguruko lurren batean zabaldu, edo berriz landareztatu behar diren hesi berde gisa.
- Egin beharreko landaketak zehaztea, proiektuan azaldutakoari jarraikiz. Izan ere, landaketa horiek beharrezkoak dira ustiatagia inguruko paisaian integratzeko, mendebaldeko eta hegoaldeko aldeetan gutxienez, Erriberritik Pitillasera doan errepidetik ikusten baitira.
- Nabeen lokalizazioa eta topografia zehaztea. Gomendatzen da zuhaitzak multzoka landatzea inguru horretako sakanetako ibarretan, erretenetan eta ibaietan ohikoak diren berezko espezieak erabiliz (bereziki, zurzuria eta tamariza), edo frutabolak (pikondoa, adibidez), lurrazen hezetasuna, neurri bateko gazitasuna eta materia organikoak jasaten dituztelako.

–Sortzen diren eraikuntzako eta eraispenerako hondakinak, batez ere hormigoizko horma txikia desmuntatzean sortzen direnak, indarreko legediaren arabera kudeatuko dira, eta, beraz, baimena duen kudeatzaile bati emanen zaizkio.

–Etorkizunean, abeltzariak energia, hornidura edo saneamendu zuzkiduraren bat behar baldin badu, behar diren ingurumen baimenak lortzeari begira, unean-unean indarra duten legediaren arabera tramitatuko dira.

3. Ingurumen ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legearen 47. artikulua aurreikusten duenari jarraikiz, ingurumen txostenaren aurka ezin izan da errekurtsorik jarri, proiektua onesteko xedapen orokorraren aurka auzibidean jar daitezkeenak ukatu gabe, edota plan edo programa onesteko egintzaren aurka administrazio bidean jar daitezkeenak ukatu gabe.

4. Ebazpen hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

5. Ebazpen hau igortzea Kutsaduraren aurkako Prebentzio Atalari, Pitillasko Udalarai, Basozainak-Ingurumena Zaintzeko Taldeari (10. eskualdea, Tafalla-Zangoza) eta interesdunari, behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2020ko otsailaren 10ean.–Ingurumeneko zuzendaritzako nagusia, Pablo Muñoz Trigo.

I. ERANSKINA

Ukituriko administrazio publikoentzat eta pertsona interesdunentzat irekitako kontsulta-tramitea. Kontsultatutako administrazio eta entitateen zerrenda

Ukitutako administrazioak:

–Udalak:

Pitillasko Udala.

–Nafarroako Gobernuaren erakundeak:

- Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusia.
 - Erregistroaren, Ondasun Higigarrien eta Arkeologiaren Atala.
- Erdialdea eta Erribera Kudeatzeko Atala.
 - Ingurune Naturalaren Zerbitzua.
 - Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioioko Departamentua.
- Lurraldearen Antolamenduaren eta Estrategiaren Atala.
 - Lurralde eta Paisaia Zerbitzua.
 - Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioioko Departamentua.
- Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzua.
 - Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioioko Departamentua.
- Herri-lurren Atala.
- Abeltzaintza Zerbitzua.
- Herri Lan Zuzendaritza Nagusia. Garapen Ekonomikorako Departamentua.

–Nafarroako Gobernutik kanpoko erakundeak:

- Ebroko Konfederazio Hidrografikoa.

Pertsona interesdunak:

- Ekologistak Martxan Iruñea.
- GURELUR-Ingurune Naturala Babesteko Nafarroako Funtsa.
- Lurra Nafarroa-Lurra Defentsaren Aldeko Elkarte.
- Nafarroako Ehiza Federazioa.
- UAGN (Nafarroako Nekazarien eta Abeltzainen Batasuna).
- EHNE (Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna).
- Sustrai Erakuntza fundazioa.
- Ekologistak Martxan La Ribera-Landazuria.
- Gorosti Natur Zientzia Elkarte.
- Aranzadi Zientzia Elkarte.

Tramite honetarako ezarritako hilaibeteko epea bukatutik, Herri-lurren Atalaren aldeko txostena eta Nekazaritzako Azpiegituren Zerbitzuko Ureztalurren eta Lurzati Berrantolamenduaren Atalaren aldeko txostena jaso dira. Lurraldearen Antolamenduaren eta Estrategiaren Atalari adierazi du jardueraren lizentziaren tramitazioan emanen duela bere txostena.

F2002106

GARAPEN EKONOMIKO ETA ENPRESARIALEKO DEPARTAMENTUA. **Jendaurreko informazioa, Zangozan goi tentsioko instalazio elektrikoak jartzeko administrazio baimenari buruzkoa, proiektuaren onespenerari buruzkoa eta zehazki haren onura publikoak deklaratzeari buruzkoa. Espedientea: SAT11080.**

Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen 54., 55. eta 56. artikuluetan eta abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 125. eta 144. artikuluetan ezarritako ondorioetarako, jendaurrean jartzen da I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAUren eskaera, goi tentsioko honako instalazio elektriko honi administrazio baimena eman, proiektua onetsi eta zehazki haren onura publikoak deklaratzeko:

- a) Instalazioaren kokalekua: Zangozako udal-mugartea.
- b) Xedea: inguru horretako horniduraren kalitatea hobetzea.
- c) Ezaugarri nagusiak: "Zangoza-Kaseda" 13,2 kV-eko aireko linea elektriko berritzea, 1901. eta 1914. euskarrien arteko tartean, Zangozako udal-mugarlean.
- d) Aurrekontua: 22.746,35 euro.

Onura publikoaren deklarazioak berekin du ondasunak okupatu beharra edo ukitutako eskubideak eskuratu beharra, eta presako okupaziora behartuko du, ondorioak izan ditzan Desjabetzeari buruzko Legearen 52. artikulua. Enpresa eskatzailea onuradun bihurtuko da desjabetze espedientearen, Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 2.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz.

Espedientea jendaurrean egonen da Industria Antolamenduaren, Azpiegitura Energetikoen eta Meatzeen Zerbitzuan, interesdunek azter dezaten eta, bidezko bada, idatziz egin ditzaten egoki iruditzen zaizkien alegazioak, iradokizunak edo oharra, 20 egun balioduneko epean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita.

